
FORU

DEKRETUA



Nafarroako
Gobernua

IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI ETA
IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKOA





AURKEZPENA

Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen eskubideei eta betebeharreri eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetakoz bizikidetzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratuta, arau hori ezartzeko prozesua amaitu da. Egia da prozesu luzea izan dela, baina, horri esker, sakon eta lasai hausnartu dugu hezkuntzaren helburu bati (bizikidetzari onari) buruz, eta Nafarroan hezkuntzan esku hartzen duten eragile guztiek hartu dute parte araua bideratzeko.

Horrenbestez, poztu egin gaitezke: hezkuntza-komunitateak behin eta berriz eskatu duen testu bat aberastu dugu, besteak beste, ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteek, irakasleen sindikatuek eta elkarteek, guraso-elkarteen federazioek, Foru Komunitateko ikastetxe pribatuaren titular diren erakundeek, elkarteek eta arartekoak egindako ekarpenei esker. Halaber, poztu egiten gara adostasun handia lortu dugulako hezkuntza-komunitateko sektore guztien artean, Dekretuaren proiektua Nafarroako Eskola Kontseiluan bideratzeko prozesuak adierazten duenez.

Foru-dekretu berria gainera irakurtzen badugu, litekeena da haren helburua oker interpretatzea. Izan ere, kontua ez da bizikidetzaren kontrako jokaerak edo bizikidetzari kalte larria egiten diotenak zerrondatzea, ezta jokaera horiek zuzentzeko hezkuntza-arloko neurriak xedatzea edo neurriok hartzeko proposatutako prozedura azkarrak zehaztea ere. Dekretuak egin egiten du hori guztia, baina hau da haren funtsa: Hezkuntza Departamentuaren apustu irmoa irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari bide ematen dion giroa sustatzeko eta bizikidetzari ona ziurtatzeko ikastetxeetan. Alde horretatik, asmoen erabateko adierazpena da sarrerako lehen paragrafoa: "Elkarrekin bizitzen irakatsi eta ikastea, bizikidetzaren ikastea, hezkuntzaren funtsezko helburua izateaz gain, egungo hezkuntza-sistemen erronka nagusietako bat ere bada".

Bizikidetzari kudeatzeko eredu integratu bat garatzen du legezko testu berriak. Eredu horrek hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea eta konpromisoa sustatzen du, ikastetxeetan bizikidetzari ziurtatzeko, eta elkarren artean gatazka duten alderdien arteko komunikazioa, gatazken prebentzioa eta gatazkek modu baketsuan konpontzea bultzatzen du. Are gehiago, foru-agindu bidez, laster garatuko dute Dekretua, ikastetxeek beren bizikidetzari- plana prestatzeko, heziketa-proiektuaren barnean betiere.

Bestalde, hezkuntzari buruzko lege organikoek ikasleei ezartzen dizkieten eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu foru-dekretu berriak. Irakasleek eta ikastetxeetako zuzendariak hezkuntza-arloan duten aginpidea finkatzen du, eta azkar eta malguki erabiltzeko tresnak ematen dizkie horiei, giro ona berehala berrezartzeko ikastetxeetan. Era berean, ikastetxeen autonomia areagotzen du, bizikidetzari- araudiari buruzko zehaztapenak baliatuz, eta gurasoek seme-alaben heziketa-prozesuan duten erantzukizuna nabarmentzen du, baita haien esku-hartzea eta konpromisoa ere bai bizikidetzari hobetzeko, bai ikasleen jokaera jakin batzuk zuzentzeko.

Orain, araua ikastetxeetan zuzerki aplikatzeko garaia da, eta, horretarako, material osagarri hau prestatu dugu. Helburua da Dekretuaren edukia modu atsegin eta errazean azaltzea; haren oinarriko ezaugarriak nabarmentzea, aurkezpen honek apenas zirriborratzen baititu; eta irakasleak eta ikastetxeetako zuzendariak Dekretua berehala aplikatzen laguntzea.

Espero dugu denon artean ikastetxeetan bizikidetzari- giro bikaina sustatzea lortuko dugula, ezin uko eginezko helburua baita, eta Nafarroako Foru Komunitatean gizarte demokratiko, solidario, kohesiodun, kritikoa eta bakezalea finkatzen lagunduko duela horrek.

Alberto Catalán Higuera
HEZKUNTZA-KONTSEILARIA

FORU DEKRETUA

47/2010 FORU DEKRETUA IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI ETA IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKOA

II

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- Eskubideak / 12. or.
- Betebeharrak / 14. or.

SARRERA

- Dekretuaren oinarrizko ezaugarriak / 6. or.
- Dekretuaren egitura / 7. or.

III

IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKO ARAUAK

- Bizikidetza ikastetxeetan / 18. or.
 - Bizikidetza-plana
 - Prebentzio-neurriak
 - Bitartekotza, hezteko tresna eta gatazkak konpontzeko metodo
 - Bizikidetzarako konpromisoak
 - Bizikidetza-araudia
- Jokaerak zuzentzea / 21. or.
- Bizikidetzaren KONTRAKO jokaerak / 22. or.
 - Zein dira?
 - Hezkuntza-arloko neurriak
 - Hezkuntza-arloko neurriak ezartzeko prozedura
- Bizikidetzari KALTE LARRIA egiten dioten jokaerak / 24. or.
 - Zein dira?
 - Aringarriak eta larrigarriak
 - Hezkuntza-arloko neurriak
 - Kautelazko neurriak
 - Ezartzeko prozedura
 - Arrunta
 - Hitzartua

IV

FAMILIEN PARTE-HARTZEA

- Eskubideak / 30. or.
- Erantzukizunak / 31. or.

V

BESTE XEDAPEN BATZUK 34. or.

VI

DOKUMENTU OSAGARRIAK 40. or.



I-SARRERA



SARRERA

Dekretuaren oinarritzko ezaugarriak

Funtsean, zuzendaritza-taldeentzat eta irakasleentzat da 47/2010 Foru Dekretua, baina hezkuntza-komunitate osoak ezagutu, errespetatu eta aplikatu behar du harengan zuzeneko eragina duten edo haren lanarekin zerikusia duten gai guztietan.

- **Ikasleen eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu.**
- **Bizikidetza kudeatzeko eredu integratu batean oinarritzen da:**
 - Eredu horrek hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea eta konpromisoa sustatzen du.
 - Bizikidetza-giro ona sorrarazi eta mantentzen du.
 - Elkarren artean gatazka duten alderdien arteko komunikazioa eta gatazkak modu baketsuan konpontzea bultzatzen du.
- **Bizikidetza hobetzeko eta bizikidetza irakatsi eta ikasteko neurriak ezartzen ditu.** Tartean, nabarmentzekoak dira bizikidetzarako konpromisoak eta hezkuntza-arloko bitartekotza.
- **Irakasleek hezkuntza-arloan duten erantzukizuna eta aginpidea areagotzen du:**
 - Irakasleak dira irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua kudeatzeko eta ikasgelan giro egokia sustatzeko arduradunak.
 - Jokaera desegokirik dagoenean, lehenbailehen hartu behar dituzte hezkuntza-arloko neurriak, ikasleek lehenbailehen utz diezaioten jokaera hori izateari eta ikasi eta hausnartu egin dezaten.
 - Parte hartu eta gainerako irakasleekin elkarlanean lan egin behar dute, ikastetxeko bizikidetza hobetzeko.
- **Bizikidetza nahasten duten egoeretan hezkuntza-arloko neurriak hartzea planteatzen du:**
 - Neurriak errazak eta azkarrak dira hartzen.
 - Irakasleek eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak dute neurriak hartzeko erantzukizuna.
 - Hezkuntza-arloko neurriak hartuz gero, ikasleek eskubidea dute entzun ditzaten, baita alegazioak aurkezteko ere.

- **Familiak parte hartzearen garrantzia** nabarmentzen du, bai ikastetxeko bizikidetzari dagokionez, bai gatazkak konpontzeari dagokionez.
- **Ikastetxeen autonomia** handitzen du eta, bizikidetzaren bitartez, dekretuak lantzen dituen gaiak zehazten uzten die, faktore hauek kontuan izanik:
 - Ikasketa-maila.
 - Irakaskuntza motak.
 - Ikasleen adina.
 - Ikastetxeen testuinguru soziokulturala.

Azken batean, Foru Dekretuaren beraren hitzaurreak dioenez, *“elkarrekin bizitzen irakatsi eta ikastea, bizikide izaten ikastea, hezkuntzaren funtsezko helburua izateaz gain, egungo hezkuntza-sistemen erronka nagusietako bat ere bada. Ikaskuntza baliotsua da berez, eta ezinbestekoa da gizarte demokratiko, solidario, kohesiodun, kritiko eta bakezalea finkatzeko”*.

Dekretuaren egitura

KAPITULUA	ARTIKULUA	
I. XEDAPEN OROKORRAK	1	Xedea eta aplikazio-esparrua
	2	Oinarrizko printzipioak
II. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	3	Ikasleen eskubideen eta betebeharren printzipio orokorrak
	4	Ikasleen eskubideak
	5	Ikasleen betebeharrak
III. IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKO ARAUAK	6	Bizikidetzaren plana
	7	Prebentzio-neurriak
	8	Bitartekotza, hezteko tresna eta gatazkak konpontzeko metodo
	9	Bizikidetzarako konpromisoak
10	Bizikidetzaren araudia	
IV. BIZIKIDETZA NAHASTEN DUTEN JOKAERAK ZUZENTZEKO PRINTZIPIO OROKORRAK	11	Zuzendu daitezkeen jokaerak
	12	Neurriak hartzeko irizpideak
	13	Egindako kalteak konpontzea
V. BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKAERAK ETA HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK HARTZEA	14	Bizikidetzaren kontrako jokaerak
	15	Bizikidetzaren kontrako jokaerak daudenean hartu beharreko hezkuntza-arloko neurriak
	16	Bizikidetzaren kontrako jokaerak daudenean hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura
VI. BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK ETA HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK HARTZEA	17	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak
	18	Aringarriak eta larrigarriak
	19	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak daudenean hartu beharreko hezkuntza-arloko neurriak

KAPITULUA	ARTIKULUA	
	20	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak daudenean hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura arrunta
	21	Alegazioak aurkezten direnean prozedura arruntarekin jarraitzea eta prozedura ebaztea
	22	Erreklamazioak
	23	Prozedura hitzartua
	24	Dokumentazioa artxibatzea eta erregistroko oharpenak deuseztatzea
VII. FAMILIEK SEME-ALABEN HEZKUNTZA-PROZESUAN PARTE HARTZEA ESKOLAKO ESPARRUAN	25	Familien parte-hartzea eta konpromisoa
	26	Gurasoen edo legezko ordezkarien eskubideak
	27	Gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizunak
XEDAPEN GEHIGARRIAK	1	Eskola Kontseiluaren eginkizunak delegatzea
	2	Eskolara ez joatea eta azken ebaluazioa
	3	DBHko 3. mailatik aurrera eskolara ez joateko eskubidea
	4	Erantzukizun soziala
	5	Erantzukizun penala
	6	Erantzukizun zibila
	7	Matrikula indargabetzea
XEDAPEN IRAGANKORRAK		Prozedurak ebaztea
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK		Araudia indargabetzea
AZKEN XEDAPENAK	1	Araudiaren garapena
	2	Bizikidetzaren planak
	3	Indarrean sartzea



II-IKASLEEN
ESKUBIDEAK ETA
BETEBEHARRAK

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Eskubideak

Oinarrizko eskubideen eta askatasunen errespetuan treba ditzaten

- Bizikidetzaren printzipio demokratikoen esparruan, ikasleek eskubidea dute gatazken prebentzioan eta gatazkek modu baketsuaren konpontzentrebaditzaten.
- Espainiako Konstituzioak, Foru Hobekuntzak eta Giza Eskubideen Adierazpe Unibertsalak onartzen dituzten balioetan eta balioetan treba ditzaten.
- Dekretu honek xedatzen dituen eskubideetan eta betebeharretan treba ditzaten.

Errespetatu ditzaten

Hau da:

- Ikasleen intimitatea errespetatzea.
- Ikasleen kontzientzia-askatasuna errespetatzea.
- Ezberdintasunak eta aniztasuna errespetatzea.
- Ikasleak nolanhiko erasoen aurka babestea.
- Ikasleen datuak isilekoak izatea.

Heziketa osoa eman diezaieten

- Garapen pertsonalari eta gizarteratzeari bide ematen diona.
- Kalitate-irizpideak betetzen dituen.
- Ikasleen aniztasunera eta gaitasunetara egokituta dagoena.
- Heziketa emozionala.
- Funtz zientifiko eta didaktikoa duten jarduerak egitea.
- Heziketa etiko eta morala.
- Eskolarako orientabidea, orientabide pertsonala eta lanerako orientabidea.
- Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza-aniztasunaren errespetua.

Objektiboki balora ditzaten

Hau da:

- Ikasleek programazio didaktikoaren berri izatea.
- Ikasleei beren bilakaeraren berri ematea.
- Ikasleek argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izatea.

Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea

Hau da:

- Beren ordezkarien bidez parte hartzea.
- Adierazpen-askatasuna, errespetua izanik betiere.
- Ikastetxean biltzeko eskubidea.
- Elkarrekin eratzeko eskubidea.
- Gatazkak konpontzeko, adiskidetzebideak erabiltzea.
- Gobernu-organismoetan parte hartzea.

Aukera- berdintasunean hez ditzaten eta gizarte-babesa eman diezaieten

Hau da:

- Ikasleei desberdintasunak edo desabantailak berdintzeko laguntza eta babesa ematea.
- Ikasleak familiarteko egoera konplexuetan babestea.
- Terrorismoaren, genero-indarkeriaren edo eskolako jazarpenaren biktima diren ikasleak laguntzea.

Beren osasuna babesteko eta hobetzeko eskubidea

Hau da:

- Ohitura fisiko eta elikadura-arloko ohitura osasungarriak sustatzea.

Gizon- emakumeen eskubideen eta aukeren ikuspegitik berdintasunean hez ditzaten

Hau da:

- Independentzia eta autonomia pertsonala lortzeko jakintzak eta abileziak irakastea.
- Ikasleek erabaki-esparruetan erantzukizuna batera izanik parte hartzea.
- Gizon-emakumei balio bera ematea.
- Sexista ez den hizkuntza erabiltzea.
- Ikasleak sexuarekin lotutako estereotiporik gabe aukeratzeko gaitzea.
- Ikasleen heldutasun pertsonal, sozial eta morala finkatzea.

Betebeharrak

Ikastea

Hau da:

- Eskolara joatea eta modu aktiboan parte hartzea.
- Garaiz iristea eta ordutegiak errespetatzea.
- Ikastea eta ahalegintzea.
- Atsedinarekin, elikadurarekin eta higienarekin arduraz jokatzeko.

Irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aginpidea errespetatzea

Hau da:

- Hezkuntza-arloan egiten duten lana errespetatzea.
- Agindutako lanak egitea.
- Ikastetxearen heziketa-proiektua errespetatzea.

Bizikidetzaren hobetzen parte hartzea eta laguntzea

Hau da:

- Ikastetxeko arauak betetzea.
- Hezkuntza-arloko jardueretan modu aktiboan parte hartzea.
- Irakasleak ikasteko giro egokia sustatzen laguntzea.
- Gatazkak modu baketsu eta bidezkoan konpontzea.
- Laguntza behar duena laguntzea.
- Egoerarik okerrean dauden pertsonak laguntzea.
- Bizikidetzaren arauak eta ikastetxeko arauak prestatzen parte hartzea.
- Hezkuntza-arloan behar bereziak dituzten ikasleak laguntzea.

Pertsonak errespetatzea

Hau da:

- Errespetua izatea bizikidetzaren funtsezko araua.
- Nori bere eskubideak erabiltzen eta bere betebeharrak betetzen uztea eta laguntzea.
- Jokaera bakezalea sustatzea eta izatea.
- Kontzientzia-askatasuna errespetatzea.
- Noren eta besteren ondasunak errespetatzea.

Ikastetxera egoki jantzita eta garbituta joatea

Hau da:

- Ikastetxeko jarduerak egiteko janzkera egokia erabiltzea.
- Ikastetxeak janzkerari buruz dioena betetzea.
- Nork bere burua garbitzea.

Instalazioak zaintzea

Hau da:

- Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua errespetatzea eta zaintzea.
- Eskolako garraio-zerbitzua errespetatzea.
- Ingurumena errespetatzea, ura, energia eta hondakinak egokiro erabiliz.
- Ikastetxearen ingurua errespetatzea.



III-IKASTETXEETAKO
BIZIKIDETZARI
BURUZKO ARAUAK



IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKO ARAUAK

Bizikidetza ikastetxeetan




Bizikidetza-plana

Ikastetxe guztiek beren **bizikidetza-plana** prestatu behar dute, ikastetxearen heziketa-proiektuaren barnean, eta, bizikidetza-planaren bitartez, **prebentzio-neurriak, bitartekotza, bizikidetzarako konpromisoak, bizikidetza-arauak** eta bizikidetza hobetzeko eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beharrezko beste neurriak ezarri behar dituzte. Urtean behin, plana berrikusi eta zehaztu behar dute.

Zuzendariak ikastetxeko bizikidetza-batzordea eratu behar dute, eta bizikidetza-planak zehaztu behar ditu haren osaera eta eginkizunak.

Hauek dira bizikidetza-planaren **lan-esparruak**: ikastetxearen kudeaketa eta antolaera, hezkuntza-komunitateko sektoreen parte-hartzea, tutoretza, gelen kudeaketa, curriculumaren araberako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak, eta ikastetxearen harremanen esparruko beste edozein.



Prebentzio-neurriak hauek izan daitezke:

Prebentzio- neurriak

1. Eguneroko lanaren barnean, ikastetxean bizikidetza-giro egokia izatea bultzatzeko jardura **espezifikoak planifikatzea**.
2. Ikasleak gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaz eta autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasunaz jabetzea ziurtatzeko **edukiak eta abileziak garatzea** eta balio demokratikoak eta pertsona guztien arteko berdintasuna **sustatzea**.
3. Gatazkak **modu baketsuan eta elkarrizketaren bidez konpontzeko** ikaskuntza planifikatzea.
4. Irakasleak, bizikidetza-batzordea eta eskola-kontseilua bizikidetzaren kontrako jokaeren prebentzioan **trebatzea**.
5. Hezkuntza-komunitateko kide guztiak prebentzio-neurriak eta hezkuntza-arloko **neurriak hartzeko koordinatzea**.
6. **Tutoretza-plana diseinatzea**, bizikidetzaren, abilezia sozioemotionalen eta balioetan heztearen inguruko helburuak eta edukiak kontuan hartuz.

Bitartekotza

Gatazkak konpontzeko metodo bat da eskolako bitartekotza, eta, haren bidez, pertsona bat elkarren artean gatazka duten bi alderdi edo gehiagoren artean sartzen da, guztientzat egokia den irtenbide bat bilatzen laguntzeko. Eskolako komunitatea osatzen duten pertsonen arteko gatazkak kudeatzeko **erabili behar da ahal dela**, gatazkei aurrea hartzeko eta gatazkak konpontzeko hezkuntza-arloko estrategiatzat, eta bakarrik edo hezkuntza-arloko beste neurri batzuk osatzeko erabil dezakegu, beste neurri batzuk hartu aurretik, beste neurri batzuk hartzearekin batera edo beste neurri batzuk hartu ondoren.

Beharrezko prestakuntza espezifikoa izan behar du bitartekoak, eta alderdikierarik gabe eta isilpean esku hartu behar du.

Bizikidetzarako konpromisoak

Ikasle batek jokaera zaila badu ikasturteko edozein unetan, ikastetxeak, ikasleak berak eta haren gurasoek edo legezko ordezkariak lankidetzaren hitzarmenak sinatu dituzakete, ahaleginak batzeko eta ekintzak eta neurriak irakasleekin eta beste profesional batzuekin koordinatzeko.

Bizikidetzaraudia

Bizikidetzaren planaren barruan egon behar du bizikidetzaraudiak, eta hauek hartu behar ditu barnean gutxienez:

- **Bizikidetzaraudiak**, ikasleen eskubideen eta betebeharren zertzea.
- **Bizikidetzaren kontrako jokaerak eta hartu** beharreko hezkuntza-arloko neurriak.
- **Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak** eta hartu beharreko hezkuntza-arloko **neurriak**.
- Hezkuntza-arloko neurriak hartzeko **prozedurak**.

Jokaerak zuzentzeko printzipioak

ZUZENDU DAITEZKEEN JOKAERAK

Esparru hauetan jazo daitezke:

- Eskola-ordutegiaren eta eskolaren barnean.
- Eskola-ordutegitik eta eskolatik kanpo, ikasleen eskubideekin eta betebeharrekin zuzeneko lotura badute.
- Jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan gertatzen direnak.
- Zerbitzu osagarrietan: jangelan, eskolako garraio-zerbitzuan.

Honelakoak izan daitezke:

Bizikidetzaren
kontrako
neurriak

Bizikidetzari
kalte larria
egiten dioten
jokaerak

HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

- Irakasle guztiek bizikidetzaren kontrako jokaerei aurrea hartu, jokaerok zuzendu behar dute, euren agintaritzaz gauzatzeko aldera.
- Hezkuntza-arlokoak.
- Gurasoek edo legezko ordezkariak eskubidea dute entzun ditzaten.
- Hezkuntza-prozesuak aurrera jarraitzen duela ziurtatu behar dute.
- Ezin da hartu segurtasun fisikoaren edo duintasun pertsonalaren kontrako neurriak.
- Proporzionaltasuna izan behar da neurrien eta ikasleen jokaeraren artean.
- Kontuan hartu behar dira ikasleen adina eta egoera pertsonala.
- Kontuan hartu behar da kalteak ordaintzeko aukera.
- Neurriak hartu aurretik, ikasleak ohartarazi behar dira eta jokaera zuzentzeko eta hausnarketa egiteko eskatu behar zaie.
- Aholkulariak erabil daitezke.
- Elkarrizketak egin daitezke nahastutako eragile guztiekin, hainbat jokaeraren agerpena saihesteko.

KALTEAK

Egindako kalteak ordaintzea ikastetxeetako bizikidetzaren funtsezko printzipioetako bat da, eta bizikidetzara-araudiak xedatzen duen moduan egin behar da.

Bizikidetzaren KONTRAKO jokaerak

● ZEIN DIRA?

Ondorioek ez dute eragiten nahaste larririk ikastetxeko bizikidetzan normalean. Bizikidetzaraudiak ezarri behar ditu.

1. **Ikasteko betebeharra ez betetzea.**
2. **Arrazoirik eman gabe**, eskolara **berandu iristea** edo eskolara **ez joatea**.
3. Behin baino gehiagotan eskolara beharrezko materialik gabe joatea.
4. **Jarraituki, lan ez egitea.**
5. **Kopiatzea** edo beste ikasle batzuei kopiatzen **uztea**.
6. Pertsonen **duintasunaren** eta eskubide demokratikoen **kontrako** berariazko **adierazpenak**.
7. Irakasleen **aginpidea ez errespetatzea** eta ikastetxeko langileak beren lanean ez errespetatzea.
8. Hezkuntza-komunitateko kideak edo hari zerbitzu egiten diotenak **oker eta begirunerik gabe tratatzea**.
9. Baimenik izan gabe, **talde batekin batera eskolara ez joatea**.
10. **Gezurra esatea edo**, nahita, informazio faltsua ematea ikastetxeko langileei.
11. **Debekatutako** edo baimendu gabeko **ekipamendua, materialak, jantziak edo tresnak eramatea edo erabiltzea**.
12. Ikastetxeko **guneak, materiala eta ekipamendua baimenik gabe**, hezkuntza-arlokoak ez diren helburuetarako edo baimendutako helburuez beste helburu batzuetarako **erabiltzea**.
13. Ikastetxeak **janzkerari buruz ezartzen dituen arauak ez betetzea**.
14. Nor bere higieñez eta garbitasunaz **nahita eta jarraituki ez arduratzea**.
15. **Nahita**, ikastetxeko instalazioak edo materiala edo eskolako komunitateko edozein kideren jabetzak arin **hondatzea**.
16. Ikastetxea, eskolako garraio-zerbitzua edo ikastetxearekin bisitatutako lekuak **zikintzea** eta, bereziki, pintadak egitea.
17. Eskola barnean, eskolako garraio-zerbitzuan edo ikastetxeak antolatzen dituen jarduerak egin bitartean **tabakoa erretzea edo alkoholdun edariak edatea**.

18. Ikastetxeak gurasoentzat eta legezko ordezkarietzat banatzen duen **informazioa ez helaraztea**.

19. Eskolako jardun normala nahasten duen beste edozein huts.



“Beren autonomia erabiliz, bizikidetza-araudiaren bidez, aurreko atalean aipatutako jokoerak zehaztu ditzakete ikastetxeek, beren heziketa-proiektua eta izaera kontuan izanik” (14.2. artikulua).

● HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK

NEURRIA	IRAUPENA
Ikasleen jolasaldia erabiltzea.	
Eskola jakin batzuetara joaten ez uztea. Eskola horiek irauten duten bitartean, ikaslea ikastetxean dagoela eta agintzen dizkioten jarduera hezigarriak egiten ari dela ziurtatu behar da.	Irakasgaiko hiru eskola gehienez ere
Ikastetxean sartzeko edota ikastetxetik ateratzeko ordutegia aldatzea.	Bost egun gehienez ere
Kaltea ordaintzen laguntzeko lanak eginaraztea.	
Jarduera osagarrietan edota eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea galaraztea.	Denboraldi mugatua
Beste talde batera aldatzea aldi baterako.	
Eskolako garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea galaraztea.	Hamar bidaia gehienez ere
Eskolako jangelako ordutegia aldatzea.	
Kopiatutako edo beste ikasle batzuei kopiatzen utzitako azterketa, proba edo ariketa negatiboki kalifikatzea.	Bost egun gehienez ere



“Beren autonomia erabiliz, bizikidetza-araudiaren bidez, aurreko atalean aipatutako hezkuntza-arloko neurriak zehaztu ditzakete ikastetxeek, beren heziketa-proiektua eta izaera kontuan izanik” (15.2. artikulua).

● EZARTZEKO PROZEDURA

Oro har, ikastetxeko **zuzendariak** edo hark ordezkari izendatzen duen irakasleak edo organoak hartu behar ditu aipatutako neurriak, baina neurri jakin batzuk hartzea unean-unean eskola ematen ari den irakasleari dagokio.

Hala badagokio, irakasleek zuzendaritza-taldeari, ikasleari eta ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi behar diete neurriak hartu dituztela. Hezkuntza-arloko neurrien aurka ez dago administrazio-bidetik inongo erreklamaziorik aurkezterik. Ikastetxeek hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura **ezarri behar dute bizikidetza-araudian.**

Bizikidetzari KALTE LARRIA egiten dioten jokaerak

● ZEIN DIRA?

Ondorioek nahaste larriak eragiten dituzte ikastetxeko bizikidetzan normalean. Bizikidetzaraudiak ezarri behar ditu.

1. Irainak, gezur beltzak, laidoak, iseka edo apalkuntza, mehatxuak, indarkeria fisikoa edo beste mota bateko indarkeria, jazarpena eta hitzezko edo egitezko erasoak.
2. Baimendutako beste helburu batzuetarako **testuak, irudiak edo soinuak grabatzea**.
3. Edozein tresna elektronikoren bitartez edo beste bide batetik, aurreko atalean aipatutako jokaerak **ezagutaraztea**.
4. **Nahita**, ikastetxeko instalazioak edo materiala edo noren edo besteren jabetzak **larriki hondatzea**.
5. **Asmo txarrez**, segurtasun fisikoa **arriskuan jartzen** duten jokaerak.
6. Nahita, **gezurra esatea edo informazio faltsua ematea**.
7. Ikastetxearen edo beste edozein pertsonaren **jabetzak lapurtzea**.
8. Egintza akademikoetan **nortasuna ordeztzea** eta dokumentu akademikoak **faltsifikatzea edo lapurtzea**; bereziki, **azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea**, baita haiek **ezagutaraztea, edukitzea, erostea eta saltzea** ere.
9. Bizikidetzari kalte larria egiten dion jokaera baten **berri izatea edo haren lekuko izatea** eta zuzendaritza-taldeari **ez jakinaraztea**.
10. **Obedientzia ukatzea**.
11. Konstituzioak ezartzen dituen eskubideen eta askatasunen kontrako edo terrorismoaren apologia egiteko **kartelak jartzea eta horrelako pintadak egitea**.
12. **Drogak kontsumitzea**; drogak banatzea; ikastetxean, eskolako garaio-zerbitzuan edo ikastetxeak antolatzen dituen jarduerak egin bitartean tabakoa erretzea edo alkohol edariak edatea behin baino gehiagotan; eta hori egitera bultzatzea.
13. Bizikidetzaren kontrako jokaerak **errepikatzea**.
14. Zuzeneko helburutzat ikastetxearen jardun normala galaraztea duen edozein huts edo egintza.

Ikastetxeen autonomia

"Beren autonomia erabiliz, bizikidetzaraudiaren bidez, artikuluko honetako 1. atalean aipatutako jokaerak zehaztu ditzakete ikastetxeek, beren heziketa-proiektua eta izaera kontuan izanik" (1. artikulua). 17.2 artikulua

● ARINGARRIAK ETA LARRIGARRIAK

ARINGARRIAK	LARRIGARRIAK
<ul style="list-style-type: none"> ● Errua onartzea eta kaltea konpontzea. ● Nahitakoa ez izatea. ● Barkamena eskatzea. ● Egindako kaltea arintzeko neurriak eskaintzea. ● Aurrez hezkuntza-arloko neurririk bete behar ez izana. ● Bitartekotza-prozesuetan parte hartzeko borondatea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Aurrez erabaki izana. ● Ikasturte berean behin baino gehiagotan izatea bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoerak. ● Hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten dieten jokoerak, bereziki, adingabeak edo ahulak badira kideok. ● Nolanahiko diskriminazioa dakarten egintzak. ● Taldea hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak urratzera bultzatzea. ● Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoerak begien bistan iragartzea. ● Egindako kalteak bereziki esanguratsuak izatea. ● Zuzendu beharreko jokoerak edozein bitarteko erabiliz grabatzea edota ezagutaraztea.

● HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK

NEURRIA	IRAUPENA
Eskola-orduetatik kanpo hezkuntza-komunitatearen mesederako lanak eginaraztea eta instalazioetan egindako kaltea konponaraztea.	
Jarduera osagarrietan edota eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea galaraztea .	Ikasturte osoa edo zati bat
Maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko .	
Irakasgai bateko edo hainbateko eskoletara eta, salbuespen gisa, ikastetxera joateko eskubidea galaraztea .	15 eskola-egun gehienez ere
Eskolako garraio-zerbitzua edo jangela erabiltzeko eskubidea galaraztea .	15 eskola-egun gehienez ere
Ikasleek aukeran badute eskolako zerbitzuak (garraio-zerbitzua edo jangela) erabiltzea, horretarako eskubidea galaraztea .	Ikasturtea amaitu bitartean
Salbuespen gisa, ikastetxez aldatzea .	



“Beren autonomia erabiliz, bizikidetzaraudiaren bidez, artikuluko honetako 1. atalean aipatutako hezkuntza-arloko neurriak zehaztu ditzakete ikastetxeek, beren heziketa-proiektua eta izaera kontuan izanik” (1. artikulua). 19.3 artikulua

● KAUTELAZKO NEURRIAK

KAUTELAZKO NEURRIAK
Ikaslea taldez aldatzea aldi baterako
Aldi baterako, eskola jakin batzuetara edo ikastetxera joateko eskubidea galaraztea ikasleari
Jarduera osagarrietan edota eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea galaraztea ikasleari
Ikastetxeko zerbitzu osagarriak erabiltzeko eskubidea galaraztea ikasleari


Hezkuntza-arloko neurriak behin betiko hartu aurretik, kautelazko neurriak har ditzake zuzendariak, eta prozesua amaitu arte irauraraz ditzake.

● HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK EZARTZEKO PROZEDURA

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokoerak daudenean, hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura arrunta bideratzen hasi behar dute ikastetxeek. 47/2010 Foru Dekretuko 23. artikuluekin bat, prozedura hitzartua aplikatu daiteke egoera jakin batzuetan, eta ikasleak, familiak eta ikastetxeak bizikidetzarako konpromisoa formalizatuta amaitu behar da prozedura bideratzen.

Prozedura hitzartuaren alde egin behar dute ikastetxeek, bizikidetzaren positiboa eta sortzen diren gatazkak beste modu batean konpontzeko ikaskuntza sustatzeko.

Dagokion hezkuntza-arloko neurria betetzen amaitu eta bi urteko epean, ikastetxeek betebeharra dute prozedurak bideratu bitartean sortzen diren dokumentuak deuseztatzeko.



Jokaeraren preskripzioa jazozen da baldin eta egilea nor den jakin eta 60 egunean dagokion prozedura hasten ez bada.

Prozedura iraungi egiten da baldin eta 30 egunean bideratzen amaitzen ez bada (prozedura hitzartua denean, prozedura 20 egunean bideratzen amaitzen ez bada). Prozedura dakarren jokaeraren preskripzio-epa amaitzen ez bada, beste prozedura bat has daiteke.



IV-FAMILIEN PARTE-HARTZEA



FAMILIEN PARTE-HARTZEA

Familien inplikazioa

Gurasoek edo legezko ordezkariak dute seme-alaben hezkuntzaren gaineko erantzukizun nagusia, eta, hori dela eta, beharrezkoa da familiek eskolan **parte har** dezaten eta eskolarekiko konpromisoa har dezaten. Ikastetxearekin elkarlanean aritu behar dute, dagokion laguntza eskatu behar dute eta dagozkion neurriak hartu behar dituzte seme-alaben heziketa egokia izateko.

Familiak dira ikasleak eskolara zein programatutako jardueretara joateko arduradunak, eta seme-alabek etxean ikasteko eta lan-programa betetzeko baliabide guztiak erabili behar dituzte.

Familien eskubideak

Hezkuntzarako eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoko 4. artikulua xedatzen ditu ikasleentzako gurasoen edo legezko ordezkarien eskubideak.

Gurasoek eta legezko ordezkariak seme-alaben irakaskuntzan parte hartzeko eskubidea ziurtatuko du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak. Hain zuzen ere, hau da seme-alaben hezkuntzan parte hartzeko eskubidea:

Seme-alaben aurrerapenei eta gizarteratzeari buruzko informazioa biltzea.

Erreklamazioak aurkeztea eta haien buruzko informazioa biltzea.

Seme-alabaren orientabideari dagokion gaiak erabakitzerakoan entzun ditzaten.

Helburuen, edukien, ebaluazio-irizpideen eta mailaz igotzeko irizpideen berri izatea.

Ikastetxearen bizikidetzaplanaren berri izatea.

Ikastetxeen antolamenduan eta gobernuan parte hartzea.

Familien erantzukizuna

Hezkuntzarako eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoko 4.2. artikulua xedatzen du ikasleen gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizuna.

Gurasoek eta legezko ordezkariak beren erantzukizunak beren gain har ditzaten ziurtatuko dute Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eta ikastetxeak. Bereziki, ziurtatuko dute erantzukizun hauek har ditzaten beren gain:

Seme-alaben hezkuntzaren bilakaeraren berri izatea.

Seme-alaben errendimenduari konpromiso aktiboa hartzea.

Ikastetxearen izaera ezagutzeta.

Ikastetxea seme-alaben jokaera jakin batzuk zehazten laguntzea.

Seme-alabek eskolak aprobetxatu dituztela ziurtatzeko neurriak hartzea.

Seme-alabak ikastetxera garaiz sartzea eta ikastetxetik garaiz ateratzea.

Ikastetxearekin komunikazio jarraitu, zuzen eta arina izatea.

Ikastetxearen arauak eta aginpidea errespetatzea eta seme-alabei horiek errespetatzea.

Seme-alabak ikastetxera bultzatzea.

Eskubideen eta betebeharren errespetua eta erabilera osoa sustatzea.

Ikastetxearen hezkuntza-proiektua errespetatzea eta beste horietatik errespetatzea.

Seme-alabak eskolatzen dituztenean, hezkuntzaren gainean dagokien erantzukizun zatia beren gain hartzeko konpromiso edo hitzarmen bat sinaraz diezaiekete ikastetxeek familiei. 27.4 artikulua.



V- BESTE XEDAPEN
BATZUK



BESTE XEDAPEN BATZUK

Eskola
Kontseiluaren
eginkizunak
delegatzea

Eskola-kontseilurik ez duten ikastetxeetan, hezkuntza-komunitateko sektoreen parte-hartzearen arduradun izendatzen duten gobernu-organoak bete behar ditu haren eginkizunak.

Eskolara
ez joatea
eta azken
ebaluazioa

Ikasleak behin eta berriz eskoletara ez joatearen ondorioz ezinezkoa bada ebaluazio-prozedura jarraitua erabiltzea, azken ebaluaziorako eskubidea dute ikasleek.

DBHko 3.
mailatik
aurrera
eskolara
ez joateko
eskubidea

DBHko 3. mailatik aurrera, ikasle-taldeak eskolara ez joateko erabakiak ez dira hartuko eskolara arrazoirik eman gabe joatetzat, baldin eta erabakiek 47/2010 Foru Dekretuko, abuztuaren 23ko, hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen dituen eskakizunak betetzen badituzte.

Erantzukizun
soziala

Irakasleek betebeharra dute adingabeak arriskuan jartzen edo babes gabe uzten dituen edozein egoera (bereziki, eskolara ez joatearekin lotutakoak) oinarritzko gizarte-zerbitzuei jakinarazteko.

Erantzukizun
penala

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak **Ministerio Fiskalari** jakinarazi behar dio arau-hauste izan daitekeen edozein gertaera. Horrek ez dakar 47/2010 Foru Dekretuak, abuztuaren 23koak, arautzen duen prozedura arrunta bertan behera uzterik.

Erantzukizun
zibila

Kalte materialak egiten dituzten edo eskolako komunitateko edozein kideren ondasunak lapurtzen dituzten ikasleek betebeharra dute kaltea ordaintzeko edo, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen baldintzetan, haien kostu ekonomikoa beren gain hartzeko.

Matrikula
indargabetzea

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak daudenean, salbuespen gisa, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko irakaskuntzan dabiltzan ikasleen matrikula indargabetu dezake ikastetxeak.



Araudia
indargabetzea

Abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua eta uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretua indar gabe gelditu dira, baita 47/2010 Foru Dekretuak, abuztuaren 23koak, xedatzen duenaren kontrakoa xedatzen duten maila bereko edo beheragoko arau guztiak ere.



Bizikidetzaplanak

Ikastetxeek beren bizikidetzaplanak prestatzeko beharrezko arauak garatuko ditu Hezkuntza Departamentuak.



VI- DOKUMENTU OSAGARRIAK



DOKUMENTU OSAGARRIAK

Hainbat dokumentu eredu daude atal honetan. Helburua prozedura arrunta eta hitzartua, 47/2010 Foru Dekretuaren 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoak, bideratzea erraztea da.

Orientagarriak dira eta ikastetxeek euren beharren arabera moldatu ahalko dituzte.

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

LEKUKOAREN JAKINARAZPENA IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI

..... jaun edo andereak,
..... zenbakiko NA duenak, den aldetik,
.....(e)an gertatutakoa jakinarazi dio
ikastetxeko zuzendaritzari:

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.:

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

PROZEDURA ARRUNTA ABIARAZTEKO DOKUMENTUA ¹

Espediente-zk.:

..... jaun edo andereak, ikastetxeko zuzendari den aldetik,(e)an gertatutakoari buruzko beharreko informazio guztia bildu ondoren, ikasleari bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerei aurre egiteko hezkuntza-arloko neurriak ezartzeko prozedura arrunta abiatzea erabaki du, Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatueta bizi-kidetzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuak xedatzen duenarekin bat, ikastetxeko bizikidetzara-araudiak dioenari jarraituz.

- Noiz izan zuen gertaeren berri:
- Aringarriak, hala badagokio:
- Non jazo ziren gertaerak:
- Larrigarriak, hala badagokio:
- Noiz jakin zuen nor izan zen egilea:
- Hartu beharreko hezkuntza-arloko neurria eta horretarako baliabideak:
 - Aringarria bete dela baieztatzen bada:
 - Aringarria betetzeak porrot egiten badu :
- Prozedura abian jartzea eragin duten egitateak eta frogak:
- Zuzendu beharreko jokaera:
- Urratutako arauak:
- Neurriak hartzen hasteko eguna: ²⁻³
- Bideratzailea:
- Neurriak amaitzeko eguna: ³
- Kautelazko neurriak:

● Prozedura hitzartua bideratzeko aukera (47/2010 FDko 23. art.)

Badagokio, ikasleak 23. artikuluko baldintzak betetzen dituelako.

- Ikaslea eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariak ikastetxe honetan(e)ane(t)an egingo dugun **bilerara** deitu ditugu, prozedura hitzartuaren abantailak azaltzeko eta prozedura hori erabili edo ez erabili erabakitzeko.

- Ikaslea eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariak bilerara etortzen ez badira edo prozedura hitzartuari uko egiten badiote, prozedura arrunta bideratzen jarraituko dugu.

Ez dagokio, ikasleak ez dituelako betetzen 23. artikuluko baldintzak.

• Alegazioak. Bideratzailea ezestea

- Ikasleek edo haien legezko ordezkariak egoki deritzeten **alegazioak** aurkez ditzakete dokumentu honen edukiaren kontra, zuzendariarentzako idatzi baten bitartez. Alegazioekin batera, interesgarri deritzeten dokumentu guztiak aurkeztu behar dituzte. **Epe** hau dute horretarako:

· Prozedura arrunta bideratuz gero, **bi eskola-egunekoa, dokumentu hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.**

· Prozedura hitzartua bideratzeko aukera eman eta interesdunak bilerara etortzen ez badira edo prozedura hitzartuari uko egiten badiote, **bi eskola-egunekoa, bileraren eguna igaro eta hurrengo egunetik hasita.**

- Bideratzailea ezesteko oinarriak izanez gero, ezetsi egin daiteke, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikulua xedatzen duen arrazoi bat argudiatuz.

• Prozedura amaitzeko ebazpena. Erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea

- Ikasleak edo haren legezko ordezkariak alegazioak aurkezten ez badituzte edo epez kanpo aurkezten badituzte, gertaerak frogatutzat hartuko dira eta prozedura abian jartzeko dokumentu hau **prozedura amaitzeko ebazpentzat hartuko da.**

- Prozedura amaitzeko ebazpena jasotzen den egunetik, eta bi eskola-eguneko epean, hartzen den hezkuntza-arloko neurria berrikusteko **erreklamazioa** jar dezakete interesdunek, Eskola Kontseiluko presidentearantzako idatzi bidez.

- Ikastetxe publikoetako ikasleak edo haien legezko ordezkariak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Itunpeko ikastetxeetako ikasleak edo haien legezko ordezkariak, berriz, jurisdikzio zibilean jarri behar dute errekurtsioa.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.:

1) Kopia bana eman behar zaie ikasleari, haren legezko ordezkariari eta, hala badagokio, bideratzaileari.

2) Prozedura hasteko dokumentua helarazi eta bost eskola-egun geroago izan behar du gutxienez.

3) Eskola Kontseiluaren aurrean alegazio edo erreklamaziorik aurkeztuz gero edo prozedura hitzartua bideratzea erabaki izanez gero, aldatu egin daitezke.

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

Prozedura arrunta hasteko JAKINARAZPENA IKASLEARI edota GURASOEI

Espediente-zk:.....

..... ikasleari espedientea abian jartzeari dagokion prozedura arrunta jakinarazteko dokumentua emateko, pertsona hauek etorri dira ikastetxera(e)ane(t)an:

Ikaslearen izenean	Ikastetxearen izenean

Bista horretan bertan, prozedura arrunta hasteko dokumentua emateaz gain, dokumentuaren edukia azaldu zaie bertaratuei.

Egintza hau egin izanaren frogagarri, dokumentu hau sinatu dute bertaratuek:

Ikaslearen izenean

Ikastetxearen izenean

Bertaratuak

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

BIDERATZAILEA EZESTEKO IDATZIAREN ERANTZUNA

Espediente-zk.:

..... ikaslearen kontrako espedientearen
bideratzailea, jaun edo anderea
ezesteko idatzia aztertu eta zera finkatu du sinatzaileak:

- Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. artikulua xedatzen duenarekin bat, argudiatutako arrazoiak bideratzailea ezesteko arrazoi [izan daitezkeela / ezin izan daitezkeela].
- Bideratzaileak bera ezesteko argudiatutako arrazoiaren [aldeko/kontrako] adierazpena egin duela.

Hori guztia kontuan izanik, bideratzailea ezesteko eskaera [onartzeko / ez onartzeko] EBAZPENA eman du.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.:

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Espediente-zk.:

.....(e)an gertatutakoa dela eta
ikaslearen izenean hasitako espedienteari dagokionez, prozedura
hasteko dokumentuko informazioa eta interesdunek aurkeztutako
alegazioak analizatu eta ebazpen-proposamen hau egin dio bideratzaileak,
..... jaun edo andreak, ikastetxeko
zuzendaritzari:

- Non jazo ziren gertaerak:
- Frogatutako egitateak eta frogak:
- Zuzendu beharreko jokaera:
- Urratutako bizikidetzara:
- Hala badagokio, kautelazko neurriak:
- Hala badagokio, aringarriak:
- Hala badagokio, larrigarriak:
- Hezkuntza-arloko neurriak hartzeko proposamena:

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion
ondorioetarako.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (bideratzailea).....

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

PROZEDURA AMAITZEKO EBAZPENA

Espediente-zk:

Ebazpen-zk:

..... jaun edo andereak(e)
an ikaslearen parte-hartzeaz
gertatutakoa dela eta bideratutako espedientea ikusirik, 47/2010 Foru
Dekretuko 21.2. artikulua egokitutako eskumenei jarraituz, zera

EBATZI DUT:

- Non jazo ziren gertaerak:
- Frogatutako egitateak eta frogak:
- Zuzendu beharreko jokaera:
- Urratutako araua:
- Kautelazko neurriak, hala badagokio:
- Hala badagokio, aringarriak:
- Hala badagokio, larringarriak:
- Hartu beharreko hezkuntza-arloko neurria eta horretarako baliabideak:
- Neurriak hartzen hasteko eguna:
- Neurriak amaitzeko eguna:
- Neurriak egiaz amaitzeko eguna:
(kautelazko neurririk badago, neurrian iraupena kenduta)

- Administrazio-bidea amaitzen du ebazpen honek. Aurkako erreklamazioa jar daiteke Eskola Kontseiluan, eta erabakia berrikusteko eskatu, ebazpena hartu eta hurrengo bi eskola-egunetan.

- Ikastetxe publikoetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Itunpeko ikastetxeetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak, berriz, jurisdikzio zibilean jarri behar dute errekurtsoa.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (Zuzendaria)

Hartzailearen sinadura:

Ebazpena emateko eguna:

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIA BERRIKUSTEKO ESKAERA ESKOLA- KONTSEILUARI

Espediente-zk.:

Ebazpen-zk.:

..... jaun edo
andereak,

..... ikastetxeko ikasle den aldetik,

..... ikastetxean matrikulatutako

..... ikaslearen guraso edo legezko ordezkari den
aldetik,

ESKATU DU:

Zuzendariak aipatutako espedienteari buruz onartutako ebazpena berrikus
dezan Eskola Kontseiluak, arrazoi hauek direla medio:

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (Eskatzailea)

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

ESKOLA-KONTSEILUAK HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIA BERRIKUSTEKO ESKAERARI buruz egindako PROPOSAMENA

Espediente-zk.:

Ebazpen-zk.:

Bere izenean, ikaslearen guraso edo legezko ordezkari den aldetik,..... ikastetxeko zuzendariak onartutako hezkuntza-arloko neurria berrikusteko eskatu du jaun edo andereak, espedientea hasi baitute ikaslearen izenean(e)an gertatutakoa dela eta. Eskaera ikusirik, zera uste du Eskola Kontseiluak:

Hori guztia kontuan izanik, ikastetxeko zuzendariari hau proposatzea erabaki du:

Hartutako hezkuntza-arloko neurria berrestea.

Hartutako hezkuntza-arloko neurria baliogabetzea.

Hartutako hezkuntza-arloko neurria aldatzea, honela:

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.: (Presidentea) Izpta.: (Idazkaria)

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

AZKEN EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA INTERESDUNEI

Espediente-zk.:

Ebazpen-zk.:

Azken ebazpen- eta jakinarazpen-zk.:

..... ikaslearen izenean (e)an gertatutakoa dela eta hasitako espedientearen kariatara Eskola Kontseiluak ebazpena berrikusteko eskaera dela eta egindako proposamena analizatu eta hau ebatzi eta jakinarazi du ikastetxeko zuzendariak:

- Aipatutako ebazpenak ezartzen duen hezkuntza-arloko neurria berrestea.
- Aipatutako ebazpenak ezartzen duen hezkuntza-arloko neurria baliogabetzea.
- Aipatutako ebazpenak ezartzen duen hezkuntza-arloko neurria aldatzea, honela:

Ikastetxe publikoetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak azken ebazpen eta jakinarazpen honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Itunpeko ikastetxeetako ikasleek eta haien legezko ordezkariak, berriz, jurisdikzio zibilean jarri behar dute errekurtsoa.

Hori guztia zuri helarazten dizut, jakin dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)an.

Izpta.:

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

PROZEDURA HITZARTUA ZUZENDARITZAREN eta INTERESDUNEN arteko BILERA

Espediente-zk.:

..... ikaslearen izenean hasitako
espedienteari dagokion prozedura arruntaren barnean prozedura
hitzartua erabiltzeko aukera emateko, pertsona hauek etorri dira
..... ikastetxera(e)ane(t)an:

Ikaslearen izenean	Ikastetxearen izenean

Bilera horretan, ikasleak edota haren legezko ordezkariak [onartu egin
dute / ez dute onartu] espedientea prozedura hitzartu bidez bideratzea.

Egintza hau egin izanaren frogagarri, dokumentu hau sinatu dute
bertaratuek:

Ikaslearen izenean

Ikastetxearen izenean

Bertaratuak

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak

PROZEDURA HITZARTUA BIZIKIDETZARAKO KONPROMISOA

Espediente-zk.:

Bizikidetzarako konpromiso-zk.:

..... ikaslearen izenean hasitako espedientea prozedura hitzartu bidez bideratzea onartu dute interesdunek, eta ikasleari aplikatu beharreko neurria eta horretarako baliabideak jakinarazi dizkie ikastetxeko zuzendariak, baita ondoriozko bizikidetzarako konpromisoa ere:

- Hartu beharreko hezkuntza-arloko neurria eta horretarako baliabideak:
- Neurriak hartzen hasteko eguna:
- Neurriak amaitzeko eguna
(kautelazko neurririk badago, neurri on iraupena kenduta):

Bizikidetzarako konpromisoa

Ikasleak edota haren legezko ordezkariak bizikidetzarako konpromiso hau onartu dute eta, horren frogagarri, sinatu egin dute,(e)n,(e)ko(a)ren(e)an.

Ikaslearen izenean

Ikastetxearen izenean

Izpta.: (Zuzendaria)

FORU DEKRETUA

IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI ETA
IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKOA

47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.

Elkarren ondoan bizitzen irakastea eta ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, hezkuntzaren helburu funtsezkoenetako bat izateaz gainera, egungo hezkuntza sistemen eginkizun nagusietako bat da. Ikaskuntza hori baliotsua da berez, eta ezinbestekoa, gizarte demokratikoa, solidarioa, kohesionatua, kritikoa eta baketsua sendotu nahi badugu.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, bere helburuen artean, hauek aipatzen ditu: ikasleen nortasunaren eta ahalmenen erabateko garapena lortzea, funtsezko eskubideen eta askatasunen errespetuan hezte, eta eskubide eta aukeren berdintasunean, baita norberaren erantzukizunean eta tolerantziaren eta askatasunaren erabileran ere, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barrenean.

Lege horrek berak gatazken prebentzioa eta gatazkek bake bidez konpontzea aipatzen ditu, eta orobat, bake-rako prestakuntza, giza baliabideen errespetua eta herritar kritiko eta arduratsuak izateko prestakuntza.

Era berean, oinarrizko gaitasunak ikastea, batez ere gizartearen eta herritar gisa jarduteko gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna, gizartearen modu aktibo eta demokratikoan elkarrekin bizitzeko ezinbesteko ikasgaia izateaz gainera, ikaslearen garapen pertsonalerako eta gizarte-integrazioarako ere lagungarria da.

Helburu horiek guztiak hezkuntzako etapa guztietan zehar zehaztu behar dira eta ikastetxearen hezkuntza proiektuan planifikatu behar dira.

Arau hau elkarbizitza kudeatzeko osoko eredu batean dago oinarritua. Eredu horrek hezkuntza komunitateko eragile guztien parte-hartzea sustatzen du, elkarbizitzarako giro positiboa eratu eta mantendu nahi du, auzitan dauden alderdien arteko komunikazioa sustatzen du eta hezkuntza neurriak eta eragindako kaltea konpontzeko neurriak aplikatzea aurreikusten du, hartutako portaeraren beharrezko ondorio gisa.

Hori horrela, abian jartzen diren prozesu eta ekintzen izaera hezigarrian irakasleak duen erantzukizuna indartzen da, hala prebentzio lanetan eta heziketari lotutako ekintza orokorrean, nola portaera desegokiak zuzentze-koetan, hori guztia, batetik, garapen pertsonalerako eskubidea bermatzeko, eta bestetik, ikasteko eta erantzukizuneko eta errespetuzko jarrerak hartzeko eginbeharra bermatzeko. Irakasleen talde-lana ezinbestekotzat eta funtsezkotzat jotzen da elkarbizitza hobetzeko.

Irakaslearen ardura da hala irakaskuntza-ikaskuntza prozesua kudeatzea, nola ikasgelan eta ikastetxean giro egokia sustatzea. Bere hezkuntza agintea, besteak beste, eginkizun profesional bikoitz hori modu eraginkorrean egitean oinarritzen da. Hortaz, zuzendaritza taldeen eta irakasleen hezkuntza agintea aitortzea eta finkatzea arau honen funtsezko alderdia da. Horregatik, ezartzen da jarrera desegokia gertatzen den bakoitzean irakasleek, beren eginkizunak erabiliz, azkar erabili behar di-

tuztela hezkuntza neurriak. Berehalako jarduketa horiek ez dituzte aurrez epaitzen ez portaera, ez eta ondotik har litezkeen neurriak ere. Helburua da portaera hori berehalakoan uztea eta ikasleari erakustea portaera desegokiarengatik berari dagokion erantzukizuna eta portaera horretatik etor litezkeen ondorioak, eta horren gainean gogoeta eginaraztea.

Foru dekretu honetan aurreikusitako beste alderdi bat familien inplikazioa eta parte-hartzea lortu beharra da, hala elkarbizitza hobetzeko, nola portaera batzuk berbiderratu behar diren kasuetan.

Foru dekretu honek ikasleen eskubide eta eginbeharrak ezartzen ditu, denentzat berdinak. Bereizketa bakarra adinaren arabera zehaztapenak dira.

Era berean, elkarbizitza eta horren irakaskuntza eta ikaskuntza errazteko neurriak ezartzen dira. Horien artean, elkarbizitzarako konpromisoak hartzea eta hezkuntzako bitartekaritza nabarmentzen dira. Elkarbizitza nahasten duten egoeren aurrean, hezkuntzako neurriak bi mailatan artikulatzen dira: lehenengoa, elkarbizitzaren aurkako portaera guztientzat, eta jarduketa bigarren maila bat, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerentzat. Neurri guztiak, hezigarriak izateko, ikastetxeak azkar eta arin aplikatzekoak izanzen dira.

Bestalde, ikastetxeen autonomia sustatzen da, aukera ematen baitzaie bakoitzaren elkarbizitza planean dekretu honetako alderdiak zehazteko, kontuan harturik ikasmailak, irakaskuntza modalitateak eta ikastetxearen gizarte eta kultur ingurunea.

Ildo horretan, foru dekretu hau esparru egokia da lanbide heziketako ikasketen, arte plastikoetako eta diseinuko, musikako eta dantzako lanbide ikasketen, musikako goi mailako ikasketen, hizkuntzen ikasketen eta helduen hezkuntzako ikasketen ezaugarri bereziak bere baitan jasotzeko, ikasleen tipologiari, ematen den prestakuntzari eta ikaskuntza prozesuaren testuinguruari berari dagokienez, foru dekretu honen ikuspegia ukitzen baitute. Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren azken xedapenetan lehenean ezarritakoarekin bat, eta kontuan harturik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan xedatutakoa, Nafarroako Gobernuari dagokio Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatzeko behar diren xedapenak ematea.

Horiek horrela, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat etorritik, eta Nafarroako Gobernuak 2010eko abuztuaren 23an egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru dekretu honen xedea da ikasleen eskubide eta eginbeharrak zehaztea, ikastetxeetako elkarbizitza arautzea eta familiek beren seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzeko esparrua ezartzea, eskola eremuari dagokionez.

2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 4ko 2/2006 Lege Organikoan araututako unibertsitateaz kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu guztietan aplikatuko da.

2. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

1. Hona hemen portaera desegokiak hartzen direnean aplikatu behar diren hezkuntza neurrien eta ikasleen eskubide eta eginbeharren esparru arau-emaielaren oinarriko printzipioak, kalitatezko hezkuntza lortzeko:

- a) Ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua faboratzen duen giroa eta harreman positiboetarako giroa ezarri beharra, erantzukizunerako hezkuntzaren kontzeptuan oinarrituta.
- b) Eskola elkarte osoaren parte-hartzea eta konpromisoa.
- c) Gatazkei aurrea hartzea eta bake bidez konpontzea.
- d) Pertsona guztien benetako berdintasuna zailtzen duten traba guztiak kentzea eta emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren erabateko berdintasuna sustatzea.
- e) Tratu berdinen printzipioa sartzea, jokabide sexistengatik, arrazistengatik, xenofoboengatik edo erlijioaren kontraengatik edo horiei loturiko estereoptiko sozialetan oinarritutako jokabideengatik bazterkeria edo desberdintasunak izatea saihestuz.

2. Eskola elkarteko kide guztiei dagokie ikastetxeetako elkarbizitza bermatzeko behar diren neurriak hartzea eta horretaz arduratzea, hala nola ikasleen eskubideak zuzen baliatzen direla eta eginbeharrak zehatz-mehatz betetzen direla bermatzeko, foru dekretu honetan ezarritakoari jarraikiz. Hori helburu:

- a) Ikastetxeko zuzendaritzak giro egokia bultzatuko du ikasteko, ikasleek gaitasunak eskuratzeko eta ikastetxean elkarren ondoan bizitzeko, eta gatazkak sortzen direnean, auzia elkarrizketaren bidez, akordioen bidez, bitartekaritzaren bidez edo gatazkak bake bidez konpontzeko beste teknika batzuen bidez konpontzen saiatuko da. Bestalde, indarreko legediaren arabera bidezko diren hezkuntza neurriak ezarriko dizkie ikasleei.
- b) Eskola Kontseiluak eta klustroak behar diren neurriak eta ekimenak proposatuko dituzte ikastetxean elkarbizitza sustatzeko eta horrelakoak garatzen lagunduko dute.
- c) Eskola Kontseiluak diziplina gatazken ebazpenak eza-

gutu beharko ditu, indarreko legediaren arabera izatea begiratu du eta, erreklamazioak aurkeztuz gero, berrikusten ahalko ditu.

- d) Klustroak ezagutu beharko du, orobat, diziplina gatazken ebazpena eta zuzenketa neurrien ezarpena, eta indarreko araudiaren arabera izan daitezkeen begiratu du.
- e) Tutoreek, taldekako eta banakako tutoretzaren bidez, bermatuko dute ikasleak integratzeko eta elkarbizitza hobetzeko estrategia eta jarduerak garatzen direla, baita familiekiko lankidetzaren ere, elkarrizketen, bileren edo egoki iruditzen zaizkien beste baliabide batzuen bitartez.
- f) Irakasleek ikastetxeko jarduerak errespetuzko giro batean garatzen lagunduko dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta gaitasunak eskuratzeko prozesua errazteko ikasleei, eta horretarako beren agintea erabiliko dute gelan eta ikastetxean. Era berean, sortzen diren diziplina gatazketan edo arazoetan lehenengo esku-hartzearen arduraduna izanen da eta konpontzeko behar diren neurriak aplikatuko ditu bere erantzukizunaren eremuan.
- g) Ikasleek erantzukizunez jokatu dute beren eskubideak erabili eta eginbeharrak betetzeko orduan.
- h) Gurasoek, beren seme-alaben lehenengo hezitzaile nagusiak direnez, behar diren neurriak hartu beharko dituzte familia giroan, irakasleen agintearen aitorpena sustatu beharko dute seme-alaben artean, eta hezkuntza prozesua egokia izan dadin lagundu beharko dute, ikastetxeak hartzen dituen erabakiak errespetatuz.

3. Hezkuntza Departamentuak babes eta laguntza juridikoa bermatuko die hala zuzendaritza taldeei, nola irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei, beren lanbide jardueran gatazkak sortzen direnean.

II. KAPITULUA

Ikasleen eskubideak eta eginbeharrak.

3. artikulua. Ikasleen eskubide eta eginbeharren printzipio orokorrak.

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Ezberdintasun bakarrak adinaren arabera zehaztuz izanen dira.

2. Eskolatzaldian, ikaslea bere eginbeharrez arduratuko da, erantzukizunez, eta bere eskubideak ezagutu eta erabiltzeko orduan, beste pertsonak errespetatu beharko ditu, izan ere, erantzukizun hori foru dekretu honen erreferentzia nagusietako bat da.

3. Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan hezteko, ikasleek arau horiek ezagutzeko eskubidea eta errespetatzeko beharra dute.

4. Eskubide bat erabiltzeak, banaka edo taldeka, berarekin dakar beste eskubideak errespetatu beharra.

5. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta eskola elkarteko gainerako kideek bermatu behar dute eskubide eta eginbehar horiek testuinguru egokian erabiltzen direla.

4. artikulua. Ikasleen eskubideak.

Ikasleek honako oinarrizko eskubide hauek dituzte:

a) Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- a.1) Tolerantziaren eta askatasunaren erabileran oinarritutako hezkuntza, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barrenean, hala nola gatazkei aurrea hartu eta bake bidez konpontzeko jokabidean oinarritutako hezkuntza.
- a.2) Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan oinarritutako hezkuntza.
- a.3) Giza Eskubideen tratatu eta deklarazio unibertsalean aitortutako printzipio eta eskubideetan, herritar demokratikoen substratua osatzen duten balio erki-deetan eta pertsona guztien duintasunaren errespetuan –nolakoa den aintzat hartu gabe– oinarritutako hezkuntza.
- a.4) Foru dekretu honetan eta indarreko legedian ikasleei eta eskola elkarteko gainerako kideei aitortzen zaizkien eskubide eta eginbeharretan oinarritutako hezkuntza.

b) Osoko prestakuntza jasotzeko eskubidea, bere nortasuna erabat garatzen laguntzen duena. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- b.1) Oinarrizko gaitasunetarako hezkuntza, garapen pertsonala eta gizarte integrazioa ahalbidetzeko.
- b.2) Curriculumaren arlo guztietan ikasleak kalitatezko irizpideekin hezten dituen irakaskuntza.
- b.3) Prestakuntza interes ezberdinetara eta ikasleen ahalmen ezberdinetara egokitutako hezkuntza.
- b.4) Hezkuntza emozionala, pertsonen arteko harremanak egoki bideratzen laguntzen duena.
- b.5) Zientzian eta didaktikaren oinarrizko printzipioetan oinarritutako irakaskuntza jardueren garapena.
- b.6) Prestakuntza etiko eta morala.
- b.7) Eskola eta lanbide orientazioa eta orientazio pertsonala, bakoitzak bere gaitasun, ahalmen eta interesen arabera erabakiak hartzea ahalbidetzen duena.
- b.8) Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza aniztasunaren errespeturako prestakuntza.

c) Errespetatua izateko eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorak 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- c.1) Intimitatearen errespetua.
- c.2) Kontzientzia askatasunaren errespetua, hala nola norberaren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralen errespetua.

- c.3) Pertsona guztien aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua, estereotipoetatik eta kanpoko beste baldintza batzuetatik haratago.
- c.4) Eraso fisikoen, emozionalen, moralen edo bestelakoen kontrako babesa.
- c.5) Elkarbizitza positiboko giroa, jarduerak normal egiteko aukera ematen duena eta errespetua eta elkartasuna sustatzen dituen.
- c.6) Konfidentzialtasuna datu pertsonalen tratamenduan. Irakaskuntzaren eginkizunetarako beharrezkoak izateagatik ikastetxeak biltzen dituen ikasleen datu pertsonalen tratamenduan datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dituzten arau tekniko eta antolaketaak aplikatuko dira. Datuak lagatzeari dagokionez, datu pertsonalen babesari buruzko legediari jarraikiko zaio. Nolanahi ere, ikastetxeak eskatzen duen informazioa irakaskuntza eta orientazio lanetarako behar-beharrezkoa dena izanen da, eta hezkuntzatik kanpoko beste erabilera batzuetarako ezin izanen da erabili, non ez dagoen familiaren edo ikaslearen, adinez nagusia bada, berriazko baimena.

d) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea.

Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- d.1) Programazio didaktikoen oinarrizko alderdiak eza-gutzea: helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluaziorako, kalifikaziorako eta aurrera egiteko irizpideak.
- d.2) Bere ikaskuntza prozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzea, baita horren arabera hartzen diren erabakien berri ere.
- d.3) Lortutako kalifikazioen eta hartutako erabakien gaineko argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkezteko aukera izatea, hala ebaluazio partzialetan nola azkenekoetan, betiere Hezkuntza Departamentuak ezartzen duenari jarraikiz.

e) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea.

Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- e.1) Ikastetxean dituzten ordezkarien bidez edo legez eratu dauden ikasleen elkartearen bidez parte hartzea.
- e.2) Adierazpen askatasuna. Bere iritziak errespetuz adierazteko aukera, baldin eta iritzi horiek Giza Eskubideen eta balio demokratikoen esparruaren barrenean badaude eta ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxearen izaera errespetatzen badituzte. Ikastetxeek, nor bere Elkarbizitzaren Erregelamenduan, eskubide hori erabiltzeko modua, guneak eta tokiak arautuko dituzte.
- e.3) Ikastetxean biltzea. Ikastetxeek, Elkarbizitzaren Erregelamendua prestatzean, ikasleek eskubide hau erabiltzeko baldintzak ezarriko dituzte.
- e.4) Elkarrekin osatzea. Ikasleek elkarrekin osatzeko eskubidea dute, indarreko legediari jarraikiz.
- e.5) Adiskidetze eta bitartekaritza bidez erabiltzea gatazka konpontzeko hezkuntza metodo gisa.

e.6) Ikasleek ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzea indarreko araudiari jarraikiz.

f) Denek aukera berdinarik edukiz hezia izateko eta babes soziala izateko eskubidea.

Ikasle guztiek babes sozialerako, aukera berdintasunerako eta hezkuntza eremuan sartzeko eskubidea dute, indarreko lege esparruaren barrenean. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

- f.1) Babes eta laguntza jasotzea desberdintasun, gabezia edo desabantaila pertsonalak, familiarak, ekonomikoak, sozialak edo kulturalak konpentsatzeko, hezkuntza sisteman sartzeko edo segitzea galarazten edo zailtzen duten premia berariazkoak dituztenei arreta berezia eskainiz.
- f.2) Familia ezbeharretan edo istripuetan babesa jasotzea. Eritasun luzea gertatzen denean, ikasleak eskubidea du ezinbestean eskolatu gabe egon beharreko aldiak bere ikasketen errendimenduan duen eragina gutxitzeko behar den laguntza jasotzeko.
- f.3) Terrorismoaren biktima diren ikasleei arreta berezia ematea, ikasketak egoki egiteko behar duten laguntza jaso dezaten.
- f.4) Genero indarkeriaren edo eskolako jazarpenaren biktima diren ikasleei arreta berezia ematea.
- f.5) Tratu txar fisiko edo psikologikoen edo axolagabekeriako edo babesgabetasuneko beste edozein egoeraren arrazoizko zantzurik dagoenean edo horrelakoak konfirmatzen direnean, babesa ematea.

g) Osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea.

Ikasle guztiek beren osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea dute. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

- g.1) Ikastetxeetan ohitura osasungarriak sustatzea.
- g.2) Gorputz ariketa egiteko ohiturak sustatzea, osasunerako eta aisialdirako, hezkuntzaren ikuspegi batekin.
- g.3) Elikatzeko ohitura osasuntsuak sustatzea. Ikastetxeetako jantokietan eskaintzen diren menuetan hori bermatu behar da.

h) Jasotzen den hezkuntzan, helburuen artean emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren berdintasuna sartzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- h.1) Behar diren gaitasunak garatzea eta behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak sartzeko ikasleek autonomiaren eta independentzia pertsonalaren arloan, etxeko lanen arloan eta pertsonen zainketa arloan dituzten edo izan ditzaketen behar eta erantzukizunak beren gain har ditzaten.
- h.2) Behar diren ezagutzak eta trebetasunak sartzeko ikasleek ikas dezaten erabakitze esparruetan erantzukidetasuna onartzen eta horrela parte hartzen.
- h.3) Emakumezkoak eta gizonezkoak berdintzat hartzea, emakumezkoek hainbat diziplinatan duten jakinduria berreskuratuz eta gizadiaren garapenerako egin duten ekarpen sozial eta historikoa aintzat hartuz.
- h.4) Hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta komunikatzeko estiloen aniztasuna errespetatzea, ikaslearen autoestimua eta nortasuna garatzeko berdintasun balioak transmititzeko giltza-baliabidea baita.

h.5) Aukera akademikoak, pertsonalak eta profesionalak sexuari lotutako estereotipoetan oinarritutako baldintzarik gabe egiteko prestatzea.

h.6) Ikaslearen heldutasun pertsonala, soziala eta morala sendotzea, bere harreman pertsonaletan eta afektibo-sexualetan erantzukizunez eta modu autonomoan jarduteko, dauden desberdintasunak aztertu eta kritikoki baloratzeko eta pertsonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko.

5. artikulua. Ikaslearen eginbeharrak.

Hona hemen ikaslearen oinarritzko eginbeharrak:

a) Ikastea, ikasleen oinarritzko eginbeharra baita. Eginbehar honek zera dakar:

- a.1) Eskolako nahitaezko jarduera guztietara joatea eta aktiboki parte hartzea.
- a.2) Ikastetxeko jardueren ordutegia errespetatzea eta garaiz iristea, jarduerak ikastetxearen instalazioen barrenean izan edo kanpoan.
- a.3) Estudiatzea eta ahalegintzea, norberaren gaitasunen arabera garapenik handiena lortzeko.
- a.4) Atsedendialari, elikadurari eta higienerari dagokienez, ohitura egokiak izatea.

b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea. Eginbehar honek zera dakar:

- b.1) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea, hala hezitzaile gisa ari direnean, nola ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak eta elkarbizitzaren arauak betetzeko kontrol lanetan ari direnean.
- b.2) Irakasleek agintzen dituzten lanak egitea.
- b.3) Ikastetxearen izaera eta hezkuntza proiektua errespetatzea.

c) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea. Eginbehar honek zera dakar:

- c.1) Ikastetxeko elkarbizitzarako arauak eta antolaketa eta funtzionamendu arauak betetzea.
- c.2) Parte hartzea eta eskola elkarteko kide guztiei modu aktiboan eta positiboan laguntzea hezkuntza jarduera guztiak errazago egin daitezten.
- c.3) Ikasgelan eta ikastetxean ikasteko giro egokia sortzen eta mantentzen laguntzea irakasleei.
- c.4) Bere ahalmenen arabera, sortzen diren gatazkei aurrea hartzen eta gatazkak bake bidez eta zuzen konpontzen parte hartzea.
- c.5) Behar dutenei laguntza eskaintzea eta ematea.
- c.6) Pertsona ahulenen alde eta eskolan jazarpena jasan dezaketen alde aktiboki parte hartzea, biktimagaia errespetatuz, defendatuz eta integratuz, eta ikastetxeak Elkarbizitza Planeko "antibullying" protokoloaren bidez ezartzen dituen neurrietan lagunduz.
- c.7) Ikastetxeko eta, kasu bada, ikasgelako elkarbizitzarako arauak eta funtzionamendu arauak prestatzen parte hartzea, bere eskumen esparruan.

- c.8) Ikastetxearekin batera aktiboki parte hartzea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeko jarduera eta bizitzan sar daitezen.
- d) Pertsonak errespetatzea. Eginbehar honek zera dakar:
- d.1) Besteenganako harremanetan errespetuz jokatzeko eta hori elkarbizitzarako oinarritzeko arautzat hartzea.
 - d.2) Bere ikaskide guztiei ahalbidea eta erraztasunak ematea foru dekretu honetan ezarritako eskubide eta eginbehar guztiak erabil ditzaten, batez ere ikasteko eskubidea.
 - d.3) Jarrera baketsua izatea eta sustatzea, mota guztietako indarkeriak errefusatu.
 - d.4) Kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatzea, jende guztiaren eskubidea den aldetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Espainiako Konstituzioak babestu eta aitortua; orobat, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea errespetatzea, jaiolera, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela kausa litezkeen bazterketa guztiak saihestuz.
 - d.5) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien ondasunak errespetatzea.
- e) Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higie-nea zainduta joatea. Eginbehar honek zera dakar:
- e.1) Erabiltzen diren jantziak ikastetxeen izaeraren araberakoak izatea, ikasteko tokiak baitira. Jantziak hezkuntzako lanak eta jarduerak egoki eta ongi egiteko modukoak izan behar dira eta ikaslea identifikatzeko trabarik ez dute jarriko.
 - e.2) Ikastetxearen aholkuak errespetatzea. Ikastetxeak ikaslearen jantziak erabilera arautzen ahalko du. Araudi horrek gizonezkoen eta emakumezkoen tratu berdintasunaren irizpideak hartuko ditu aintzat eta kontuan hartuko ditu jantziaren aniztasuna eta elkarbizitzan dituzten ondorioak, gogoeta kritikoa eginez eta integrazioaren ikuspegitik, eta aniztasuna errespetatuz.
 - e.3) Norberaren higie-nea eta garbiketak ohitura egokiak izatea, osasun egoera egokian izateko eta eritasunen transmisioa galarazteko.
- f) Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruak eta eskola garraioak. Eginbehar honek zera dakar:
- f.1) Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua, larrialdietako sistemak eta hezkuntza jardueran erabiltzen diren materialak errespetatu eta zaintzea.
 - f.2) Ingurumena errespetatzea, ikastetxean garbitasuna zainduz, ura eta energia egoki erabiliz, hondakinak bereiziz, etab.
 - f.3) Ikastetxearen inguruak errespetatzea, lorategiak, espaloiak, atariak, fatxadak, hormak eta abar garbi eta txukun mantenduz.

III. KAPITULUA

Ikastetxetako elkarbizitzaren araudia

6. artikulua. Elkarbizitza Plana.

1. Arau honen xedeko ikastetxe guztiek Elkarbizitza Plana prestatu beharko dute, ikastetxearen hezkuntza proiektuaren barrenean izan behar dena.

2. Elkarbizitza Planean prebentzio neurriak, bitartekaritza, elkarbizitzarako konpromisoak eta Elkarbizitzaren Erregelamendua sartuko dira, hala nola elkarbizitza hobetzeko eta gatazkak bake bidez konpontzeko behar diren gaineko neurriak.

3. Elkarbizitza errazteko eta, hala dagokionean, gatazkak konpontzeko bitartekaritza bermatzeko, zuzendariak ikastetxeko Elkarbizitza Batzordea osatuko du. Batzordearen osaketa eta eginkizunak Elkarbizitza Planean jasoko dira.

4. Elkarbizitza Plana urtero berrikusiko da eta urteroko zehaztapenetan aplikatuko da. Prozesu horretan eskola elkartekoak diren eragileek eta haren zerbitzura jarduten dutenek parte hartuko dute.

5. Elkarbizitza Planak jarduketaren eremu hauek hartuko ditu: ikastetxearen kudeaketa eta antolaketa, eskola elkarteko sektore guztien parte-hartzea, tutoretza lana, ikasgelaren kudeaketa, irakaskuntzako eta ikaskuntzako curriculum prozesuak, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak eta ikastetxearekin harremana duen beste edozein inguruabar.

7. artikulua. Prebentzio neurriak.

Aplika daitezkeen prebentzio neurriak hauek dira:

1. Ikastetxean elkarbizitzarako giro egokia sustatzea, eguneroko eginkizunetan integratutako berariazko jarduketaren bidez.

2. Curriculum arloetako programazioetan behar diren edukiak eta trebetasunak garatzea, gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna eskuratzen direla bermatzeko, hala nola balio demokratikoak eta pertsona guztien berdintasuna sustatzeko.

3. Gatazkak elkarbizitzaren bidez eta bake bidez konpontzeko ikaskuntza planifikatzea, ikasleak ezagutzaren bidez prestatuz, hala nola heziketa emozionala, balioetan oinarritutako hezkuntza eta trebetasun sozialak landuz.

4. Elkarbizitzarako arauen kontrako portaerei aurrea hartzea, irakasleak, Elkarbizitza Batzordeko kideak eta Eskola Kontseiluko kideak trebatuz eta arlo horretan dituzten eginkizunak eta jarduketak zehaztuz.

5. Ikastetxearen, familien eta prebentzio eta hezkuntza neurriak hartzeko eskumena duten erakunde publikoen arteko koordinazioa, batez ere ikaslearen egoera familiarra, pertsonala edo bestelako bat dela kausa, elkarbizitzarako arauen kontrako jokabideak sor badaitezke.

6. Tutoretza plana diseinatzea, bertan elkarbizitzari, trebetasun sozio-emozionalei eta balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko edukiak eta helburuak bilduz eta, orohar, gizabanakoaren arteko eta taldeko harremanak indarriari aurrea hartzea eta gatazkak bake bidez konpontzea.

bideratzen dituzten ikaskizunak sartuz.

8. artikulua. Bitartekaritza: hezkuntzako baliabidea eta gatazkak konpontzeko metodoa.

1. Gatazkak bake bidez konpontzeko hartzen diren neurrietako bat bitartekaritza lana egitea izan daiteke.

2. Eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko metodo bat da, non pertsona batek auzitan dauden bi pertsonaren edo gehiagoren artean parte hartzen duen, alderdi guztientzat egokia den akordio bat aurkitzen laguntzeko. Bitartekariak zehaztuko den prestakuntza berariazkoa izanen du eta inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunez arituko da.

3. Eskolako bitartekaritza, ahal den guztietan, eskola elkarte osatzen duten pertsonen arteko gatazken kudeaketan erabiliko da, hezkuntzako, prebentziorako eta gatazkak konpontzeko estrategia gisa.

4. Ikastetxeak gatazkak konpontzeko bitartekaritza eskainiko du, ikastetxeetako elkarbizitzaren araudian ezartzen den bezala. Bitartekaritza neurri eskusiboa izan daiteke, edo osagarria, aldi berean, lehenago edo geroago hartzen diren beste hezkuntza neurri batzuekin.

9. artikulua. Elkarbizitzarako konpromisoak.

1. Ikasle batek portaera arazoak baldin baditu, ikastetxearen, ikaslearen eta gurasoen edo legezko ordezkarien arteko elkarbizitzarako konpromisoak sinatzen ahalko dira, ikasturtearen edozein unetan, ahaleginak bateratzeko eta proposatzen diren ekintzak eta neurriak irakasleekin eta beste profesional batzuekin koordinatzeko.

2. Elkarbizitzaren Batzordeak konpromiso horien jarraipena egin dezake.

10. artikulua. Elkarbizitzaren Erregelamendua.

1. Elkarbizitzaren Erregelamendua Elkarbizitza Planaren zati bat da eta, ikastetxearen errealitatea kontuan harturik, honako hauek zehaztuko ditu:

- Elkarbizitzarako arauak, foru dekretu honen II. kapituluaren adierazitako eskubideen eta eginbeharren zehaztapen gisa.
- Elkarbizitzaren aurkako portaerak eta aplikatu daitezkeen hezkuntza neurriak, foru dekretu honen V. kapituluaren ezarritakoak.
- Ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak eta aplikatu daitezkeen hezkuntza neurriak, foru dekretu honen VI. kapituluaren ezarritakoak.

2. Horiez gainera, Elkarbizitzaren Erregelamenduan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedurak sartuko dira.

IV. KAPITULUA

Elkarbizitza nahasten duten portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak

11. artikulua. Zuzendu beharreko portaerak.
Foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat, zuzendu beha-

rreko portaerak izanen dira elkarbizitzarako arauak urratzen dituztenak, Elkarbizitzaren Erregelamenduan jasotakoak badaude, eta betiere:

- Eskola ordutegiaren eta eskola eremuaren barrinean jarduerak egin bitarte gertatzen badira.
- Eskola eremutik edo ordutegitik kanpora gertatzen badira ere, ikasleek eginbeharren eta eskubideen urraketarekin zuzeneko harremana baldin badute, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera.
- Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak egin bitarte gertatzen badira.
- Ikastetxeko zerbitzu osagarriak erabili bitarte gertatzen badira (jantokia, eskola garraioa,...).

12. artikulua. Neurriak aplikatzeko irizpideak.

1. Irakasle guztiek, beren agintea erabiltzen dutenean, ikasteko behar den eskolako giro ona erraztu behar dute, eta horregatik, ikastetxeak antolatutako hezkuntza jarduerak egiten diren bitartean, elkarbizitzaren aurkakoak diren ikasle portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu.

2. Zuzendu beharreko portaeretan aplikatu beharreko neurri guztiak egintzen erantzulea den ikaslearentzat hezigarriak izanen dira. Neurri horiek, gainera, ikasleek eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute, eta erreferentzia elkarbizitza hobetzea izanen da.

3. Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, aita, ama edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko alegazioak aurkezteko, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

4. Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira:

- Neurriek ikasleek hezkuntza prozesuak aurrera segitzea bermatu beharko dute, haien prestakuntza akademikoa galarazi gabe.
- Ez da osotasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren kontrako neurririk aplikatuko.
- Aplikatzeko diren neurriak ikaslearen portaerarekin proportzionalak izanen dira.
- Neurriak aplikatzean ikaslearen adina eta egoera pertsonalak, familiarrak eta sozialak hartu beharko dira kontuan. Horretarako, irakasleek inguruabar horiei buruz behar duten informazioa biltzen ahalko dute eta, hala badagokio, familiari edo erakunde publiko eskudunei aholkatzen ahalko diete behar diren neurriak har ditzaten.
- Aplikatzeko diren neurriekin batera kalteen konponketa ere ezarriko da, batez ere kalte pertsonalak izan direnean.

5. Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz eta/edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere.

6. Neurri jakin bat aplikatzea egokia ote den erabakitzeko, irakasle arduradunek eta zuzendaritzak ondoko hauengana jotzen ahalko dute aholku eske: ikastetxeko orientatzailea, ikastetxeko Elkarbizitzaren Batzordea, Hezkuntza Departamentuko Elkarbizitzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikusatzaitza eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

7. Neurrien izaera hezigarria indartzeko eta antzeko portaerak berriz agertzeari aurrea hartzeko, neurriak aplikatu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak hala erabakitzen badu, ikaslearen, zuzendaritzaren eta zuzendaritzak berak egokitzen dituen pertsonen arteko elkarriketak egiten ahalko dira.

13. artikulua. Eragindako kalteak konpontzea.

Eragindako kalteak konpontzea ikastetxeko elkarbizitzaren oinarriko printzipioetako bat izanen da eta ikastetxe bakoitzeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen den bezala egiten da, foru dekretu honen seigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena galarazi gabe.

V. KAPITULUA

Elkarbizitzaren aurkako portaerak eta hezkuntza neurriak aplikatzea

14. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako portaerak.

1. Oro har, elkarbizitzaren aurkako portaerak dira, Elkarbizitzaren Erregelamenduan agertzen diren etiketik ikastetxeko ohiko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak ez direnak. Nolanahi ere, honako hauek elkarbizitzaren aurkako portaeratzat hartuko dira:

- a) Ikasteko eginbeharra ez betetzea, edo bere ikaskideek ikasteko duten eginbeharraz eta eskubideaz baliatzea eragozten duen beste edozein portaera hartzea eskolak bitartean.
- b) Eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikatu gabe. Eskolara ez joatea edo berandu iristea justifikatu gabekoa dela ondorioztatuko da idatziz desenkusatu ez denean. Ikastetxeko zuzendaritzak hutsegiteak justifikatzeko prozedura finkatuko du eta beharrezkotzat jotzen dituen neurriak ezarriko ditu hutsegiteak justifikatzeko informazioa biltzeko.
- c) Eskolara behin eta berriz agertzea behar den materiala eramangabe, hori ikasleari egotzi beharreko arrazoiengatik bada.
- d) Ikasleak lan gutxi egitea behin eta berriz, hala etxean nola ikasgelan.
- e) Azterketetan, probetan edo ariketetan kopiatzea edo beste ikasle batzuei kopiatzeko bidea ematea.
- f) Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak egitea, edo hezkuntza proiektuaren eta ikastetxearen beraren izaeraren aurkakoak.
- g) Irakaslearen agintearen aurkako errespetu faltak, eta ikastetxeko langileei desobeditzea, beren eginkizuntan ari direla.
- h) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideak desegoki eta errespetu gabe tratatzea.
- i) Taldekako absentzietan parte hartzea, zuzendaritzak baimentzen ez baditu.
- j) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo nahita informazio faltsua ematea, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten ez badiu.
- k) Debekatuta dauden ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramatea, salbu eta zuzendaritzaren baimena bada.
- l) Ikastetxeko guneak, materiala eta ekipamendua erabiltzea baimenik gabe, edo hezkuntzakoak ez diren helburuetarako edo baimendutakoak ez diren beste batzuetarako.

- m) Ikastetxeak jantziari buruz ezartzen dituen arauak ez betetzea.
- n) Norberaren higienari etagarbiketari behin eta berriz arreta galtzea, nahita.
- ñ) Ikastetxeko instalazio edo materialak, eskolako garraiobideak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren gauzak ere, kalte arina denean.
- o) Ikastetxeko instalazioen, ekipamenduen, materialen edo inguruen garbiketa galaratzea, hala nola eskolako garraioko autobusena edo ikastetxearekin bisitatzen diren lekuena. Pintaketak egitea bereziki tratatuko dira.
- p) Ikastetxearen barrenean, eskolako garraiobideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bitartean tabakoa erretzea edo edari alkoholodunak edatea.
- q) Ikastetxeak aitei, amei edo legezko ordezkariari bidaltzen dien informazioa ez ematea edo ez jakinaraztea haiei.
- r) Eskola jardueraren ohiko garapena nahasten duen beste edozein jokabide oker, ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaeratzat hartzen ez bada.

2. Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, ahalmena dute beren Elkarbizitzaren Erregelamenduan aurreko atalean adierazitako portaerak zehazteko, kontuan harturik Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen izaera.

15. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.

1. Elkarbizitzaren Erregelamenduan jasotzen diren elkarbizitzaren aurkako portaeretan aplika daitezkeen hezkuntza neurriak hauek dira:

- a) Atsedenaldea erabiltzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.
- b) Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslearekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko.
- c) Ikastetxean sartu eta/edo ateratzeko eskola ordutegia aldatzea, 5 eskola egunetan gehienez.
- d) Lan batzuk egitea, eskola ordutegiaren barrenean edo hortik kanpora, pertsonari, ikastetxeko instalazioei edo materialei edo eskola elkarteko kideen gauzei eragindako kalte konpontzen laguntzeko, edo eskola elkartearantz onuragarriak diren lanak egitea.
- e) Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.
- f) Ikaslea beste talde batera aldatzea aldi baterako.
- g) Eskolako garraioa erabiltzeko eskubidea etetea hamar bidaiatarako gehienez, zuzendu beharreko jokabidea eskolako garraioan gertatu bada.
- h) Eskolako jantokiaren ordutegia aldatzea bost egunetako gehienez, zuzendu beharreko jokabidea eskolako jantokian gertatu bada.
- i) 14.e) artikuluan aipatutako azterketan, proban edo ariketan kalifikazio negatiboa jartzea.

2. Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, ahalmena dute beren Elkarbizitzaren Erregelamenduan aurreko atalean adierazitako hezkuntza neurriak zehazteko, kontuan har-

turik Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen izaera.

16. artikulua. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura.

1. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzea ikastetxeko zuzendariari dagokio, edo horren eskuordetza duen organoari edo irakasleari, zeinak informazioa jasoko baitu ikastetxeak ezartzen duen prozeduraren bidez.

2. Dekretu honen 15.1 artikuluko a) eta b) neurriak aplikatzea une horretan eskola ematen ari zen irakasleari dagokio. Neurri horiek ikasleari, ikastetxeko zuzendariari eta tutoreari jakinaraziko zaizkie. Gero, tutoreak ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie.

3. Dekretu honen 15. 1 artikuluko c), d), e), f), g), h) eta i) neurriak aplikatzeko gaitasuna zuzendariari egoki iruditzen zaion organoari edo kargudunari eskuordetzen ahalko dio. Neurri horiek ikasleari, ikastetxeko zuzendariari eta tutoreari jakinaraziko zaizkie. Gero, tutoreak ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie.

4. Ikastetxeak, Elkarbizitzaren Erregelamenduan, elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura zehaztuko du, betiere foru dekretu honen 12. artikuluan ezarritakoa bermatuz.

5. Ekintzen egileen berri izan eta hogeit hamar eskolaegun igarota hezkuntza neurriak aplikatu ez bada, ezin izanen da horrelakorik aplikatu.

6. Elkarbizitzaren aurkako portaeretak hezkuntza neurrien aurka ezin da inolako erreklamaziorik egin administrazio bidean.

VI. KAPITULUA

Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak eta hezkuntza neurriak aplikatzea

17. artikulua. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak.

1. Oro har, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak dira, Elkarbizitzaren Erregelamenduan agertzen diren ikastetxeko ohiko elkarbizitza larriki nahasten dutenak. Nolanahi ere, honako hauek elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeratzat hartuko dira:

- Irakasleen edo haren agintearen aurkako edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofoboa badute edo pertsonen sinesmen edo konbikzio moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira.
- Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barruko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea zuzendaritzak baimentzen ez dituen erabileretarako, baita pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein eszena grabatzea ere.

- Aurreko atalean adierazitakoak baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez hedatzea.
- Ikastetxeko instalazioak, materialak edo dokumentuak, eskolako garraioak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen gainerako kideen gauzak ere, kaltea larria denean.
- Asmo txarrez eginak izateagatik, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen osotasun fisikoa arriskugarriak izan daitezkeen portaerak.
- Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo informazio faltua ematea nahita, horrek eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten badiu.
- Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.
- Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltatzea edo lapurtzea. Bereziki larritzat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopia lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.
- Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakituen edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.
- Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.
- Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo terrorismoaren apologiatzat hartzen diren pintaketak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea edo halako kartelak jartzea.
- Drogak kontsumitzea edo banatzea, tabakoa erretzea edo edari alkoholduak edatea behin eta berriz ikastetxeko guneetan, eskolako garraio bideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan, edo portaera horiek hartzerantz bultzatzea.
- Elkarbizitzaren aurkako portaerak behin eta berriz hartzea.
- Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztea bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.

2. Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, ahalmena dute beren Elkarbizitzaren Erregelamenduan artikuluko honetako 1. idatz-zatian adierazitako portaerak zehazteko, kontuan harturik Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen izaera.

18. artikulua. Aringarriak eta astungarriak.

1. Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruak hauek aringarritzat har daitezke:

- Portaera desegokia berez onartzea eta, hala badagokio, kalte konpontzea.
- Nahita egin ez izatea.
- Barkamena eskatzea.
- Eragindako kalte konpentsatzeko zerbait eskaintzea.
- Lehenagotik hezkuntza neurriak aplikatu ez izana.
- Arau-hausleak bitartekaritza prozesuetan parte hartzeko borondatea izatea, horrelakoetarako aukera baldin badago.

2. Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruak hauek astungarritzat har daitezke:

- Premeditazioa.
- Ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan berreslea izatea ikasturte berean.
- Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten

- duten kideei kalte egiten dieten portaerak.
- d) Ikaskide gazteagoi edo bereziki ahulak diren ikaskideei kalte egiten dieten portaerak.
 - e) Jaiolekuagatik, sexuagatik, arrazagatik, sinesmen ideologiko edo erlijiosoengatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sensorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik bereizkeria dakarten ekintzak.
 - f) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen eskubideak urratzen dituzten jarduketak taldeka egitera bultzatzea edo animatzea.
 - g) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den edozein jarduketaren publikitatea egitea.
 - h) Ikastetxeari edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei eragindako kalteak bereziki handiak izatea.
 - i) Zuzendu beharreko edozein portaera grabatzea eta/edo hedatzea.

19. artikulua. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.

1. Elkarbizitzaren Erregelamenduan jasoak izanik, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak hauek dira:

- a) Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, orobar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.
- b) Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.
- c) Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko.
- d) Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Etenaldia bitartean, ikasleak ezartzen diren prestakuntza jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua eten ez dadin. Horretarako, lan plan bat diseinatu da. Irakasleek plan horretako jardueren segimendua egiten dute eta irakasgaien azken ebaluazioan kontuan hartuko dituzte. Era berean, ikasleak etenaldi horretan programaturik dauden ebaluazio proba objektiboak egiten ahalko ditu.
Gainera, ikastetxeajakitunbada, hezkuntza neurria aplikatzearen ondorioz, adingabe bat arrisku egoera berezian edo babesik gabe gelditzeko aukera dagoela, zuzendaritzaren bidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emanen die.
- e) Eskolako garraioa erabiltzeko eskubidea etetea hamabost eskola egunetarako gehienez, portaera eskolako garraioan hartu baldin badu.
- f) Eskola jantokia erabiltzeko eskubidea etetea hamabost eskola egunetarako gehienez, portaera eskola jantokian hartu baldin badu.
- g) Idatz-zati honetako e) eta f) letretan aipatzen diren zerbitzuen erabilera aukerakoak baldin badira ikaslearentzat, haiek erabiltzeko eskubidea etetea ikasturtearen bukarara arte, portaera zerbitzu horretan hartu baldin badu.
- h) Ohiz kanpoko kasuetan, ikaslearen portaerak asaldura handia eragin baldin badio eskola elkarteari, ikastetxeko zuzendariak, Eskola Kontseiluak ontzat eman ondoren, ikastetxe aldaketa eskatuko dio Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari. Ahal bada, ikaslea es-

kolaturik dagoen ikastetxe sare eta hizkuntza modalitate bereko beste ikastetxe batera eramanen da.

2. Behin betiko hezkuntza neurriak aplikatu aurretik, zuzendariak kautelazko neurriak aplikatzen ahalko ditu. Kautelazko neurriak ikastetxeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan jaso beharko dira eta honelakoak izanen dira:

- a) Ikaslea taldez aldatzea aldi baterako.
- b) Eskola batzuetara edo ikastetxera joateko eskubidea etetea aldi baterako.
- c) Eskolaz kanpoko jardueretara edo jarduera osagarrietara joateko eskubidea etetea.
- d) Ikastetxeko zerbitzu osagarrien erabilera etetea.

3. Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, ahalmena dute beren Elkarbizitzaren Erregelamenduan artikulua honetako 1. idatz-zatian adierazitako hezkuntza neurriak zehazteko, kontuan harturik Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen izaera.

20. artikulua. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko ohiko prozedura.

1. Portaera bereziki kaltegarri guztiak eta haren ondorioak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio. Zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza hartzen duen irakasleak behar adina ikerketa edo jarduketa egiten ahalko ditu ekintza horrela tipifikatzeko, hala nola erantzuleak identifikatzeko eta ohiko prozedurari hasiera emateko, ekintzaren berri izan eta biharamunetik hasita hiru eskola eguneko epean gehienez.

2. Aurreko puntuan finkatzen den hiru eskola eguneko epea bukatuta, ustezko erantzulea edo erantzuleak identifikatu ez bad(ir)a, zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza duen irakasleak, Elkarbizitzaren Erregelamenduan xedatutakoarekin bat, egoki iruditzen zaizkion jarduketekin segitzen ahalko du haiek identifikatzeko eta prozedura hasi ahal izateko.

3. Ohiko prozedura hasiko da hasteko dokumentua ikasleari, haren amari edo aitari edo legezko ordezkariari eta instruktoreari ematearekin batera. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera preskribituko da dokumentu horren entrega ez bada egiten egintzen berri izan eta hirurogei eskola eguneko epearen barrenean.

4. Aplikatzen diren kautelazko neurriak, halakorik bada, prozedura bukatu arte mantentzen ahalko dira. Ikasleak kautelazko neurrien pean ematen duen denbora aplikatzen den hezkuntza neurrian ezartzen den denboratik deskontatuko zaio.

5. Ohiko prozedurari hasiera emateko dokumentua zuzendaritzak egin beharko du eta honako alderdi hauek jasoko ditu:

- a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- b) Prozedura irekitzea ekarri duten egintzak eta frogak.
- c) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako arauak, data eta tokia.
- d) Inplikaturako ikaslea.
- e) Tramitazioaren ardura duen instruktorea, ikastetxeak

Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezartzen duen sistemaren bidez klaustroko kideen artean hautatua.

- f) Aplikatutako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- g) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- h) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- i) Alegazioak egiteko prozedura eta epeak, adieraziz alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatutaz joko direla eta prozedura hasteko dokumentua prozedurari bukaera emateko ebazpentzat hartuko dela.
- j) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

6. Aurreko puntuan aipatzen den dokumentuan, zuzendaritzak proposatzen ahalko du prozeduraren tramitazioa foru dekretu honen 23. artikuluan ezarri bezala egitea, kontuan harturik aurretik hartan ezarritako salbuespenak.

7. Alegazioak, zuzendariari zuzenduak, ikastetxean aurkeztuko dira, idatziz, prozedura hasteko jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi eskola eguneko epearen barruan. Idazki horretan, halaber, instruktorea errefusatzeko eskaera arrazoitua egiten ahalko da.

8. Errefusatzeko instruktoreak adieraziko du alegatutako zergatia baden edo ez. Errefusatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo eskola egunean, zuzendariak horren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

9. Ezarritako epean alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatutaz hartuko dira eta prozedura hasteko dokumentua prozedura bukatzeko ebazpentzat hartuko da.

21. artikulua. Alegazioak aurkezten diren kasuetan, ohiko prozeduraren tramitazioaren jarraipena eta prozeduraren ebazpena.

1. Ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak alegazioak aurkeztuz gero ezarritako epean, instruktoreak, bere agintea erabiliz, egoki iruditzen zaizkion jarduketak egiten ditu egintzak argitzeko. Alegazioak aurkeztu eta bost eskola eguneko epean gehienez, eta alegazioak kontuan harturik, ebazpen proposamena prestatu eta zuzendariari aurkeztuko dio. Proposamen horretan alderdi hauek jasoko dira:

- a) Frogatutaz hartzen diren egintzak eta hori egiaztatzen duten frogak.
- b) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako elkarbizitza arauak, data eta tokia.
- c) Inplikaturako ikaslea.
- d) Aplikatutako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- e) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- f) Aplikatu beharreko hezkuntza neurrien proposamena.

Bost eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, instruktoreak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu.

2. Ebazpen proposamena aurkeztu eta biharamunetik hasita bi eskola eguneko epean gehienez, zuzendariak prozedura bukatzeko ebazpena emanen du. Bi eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, zuzendaritzak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu. Ebazpen horretan honako hauek adieraziko dira gutxienez:

- a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudia- ren aipamen zehatza.
- b) Frogatutako egintzak eta zuzendu beharreko portaerak.
- c) Inguruabarastungarriak eta aringarriak, horrelakorik baldin badago.
- d) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak eta, hala badagokio, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- e) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

3. Ohiko prozeduraren ebazpenaren berri ikasleari eta bere gurasoei edo legezko ordezkariari emanen zaie, idatzi baten bidez, non adierazi beharko baita ebazpen horrek ez duela amaitzen administrazio bidea eta haren aurka, aukeran, 22. artikuluan aipatzen den erreklamazioa edo bidezko errekurtsio juridikionala aurkezten ahalko dela, baita zein organotan aurkeztu behar den eta zein epetan.

4. Ikastetxeak, Elkarbizitzaren Erregelamenduan, elkarbizitza bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko prozedura ezarriko du, betiere foru dekretu honen 12. artikuluan ezarritakoa bermatuz.

5. Nolanahi ere, ohiko prozeduraren tramitazioa hogeita hamar eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasieraren jakinarazpenetik hasita interesdunari edo, hala badagokio, familiari jakinarazten zaion arte. Bestela, prozedura iraungitaz hartuko da.

22. artikulua. Erreklamazioak.

1. Prozeduraren gaineko ebazpena jakinarazita, ikasleak, adinez nagusia bada, edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak zuzendariaren erabakiaren berrikuspena eskatzen ahalko diote Eskola Kontseiluari, jakinarazpena jaso eta bi eskola eguneko epearen barruan.

2. Hartutako erabakia berrikusteko, Eskola Kontseiluaren bilkura berezia deituko da. Prozedurari bukaera emateko ebazpena eta erreklamazioa ikusita, Kontseiluak zuzendariari proposatuko dio aplikatutako neurria berresteko edo aldatu edo baliogabetzeko.

3. Kontseiluaren proposamena hamar eskola eguneko epean egin beharko da, erreklamazioa jaso eta biharamunetik hasita. Eskola Kontseiluaren proposamena erabakia aldatu edo baliogabetzekoa baldin bada, proposamena jaso eta biharamunetik bi eskola eguneko epean, zuzendariak Hezkuntza Departamentuari hartutako erabakiaren legezotasunari buruzko txostena eskatzen ahalko dio. Txosten hori hamar eskola eguneko epean egin beharko da. Zuzendariak bere ebazpena eman eta erreklamazio-egileari idatziz jakinarazi behar dio.

4. Jakinarazpen horretan adierazi beharko da ebazpenaren aurka bidezko den errekurtsioa, zein organotan jarri behar den eta zein epetan.

23. artikulua. Prozedura adostua.

1. Ikastetxeko zuzendariak arau-haustea egin duen ikasleari eta haren gurasoei edo legezko ordezkariari aukera emanen die prozedura adostuaren bidea hartzeko, inguruabar hauek betetzen badira:

- a) Bereziki kaltegarria den portaera aitortzea.
- b) Kalteturik izanez gero, haiei barkamena eskatzea.
- c) Ikastetxeakaintzartzendituenbesteinguruabarbatzuk, Elkarbizitzaren Erregelamenduan jaso beharrekoak.

2. Honako kasu hauetan, ezin izanen da espedientea prozedura adostuaren bidez tramitatu:

- a) Inplikaturako ikasleari horrelako beste prozedura bat tramitatu baldin bazaio ikasturte berean.
- b) Ikasturte berean, ikasleari aplikatu zaion hezkuntza neurriren bat ez bada bete.
- c) Ikastetxeak zehazten dituen beste kasu batzuetan, Elkarbizitzaren Erregelamenduan jaso beharrekoak.

3. Prozedura adostuaren bidez tramitatzeko aukera ohiko prozedura hasteko dokumentuan jasoko da. Dokumentu horretan interesdunei bilera bat egitea proposatuko zaie, behar den deialdiaren bidez.

4. Bilera hori ikastetxeko zuzendaritzarekin izanen da eta helburua izanen da prozedura adostuaren abantailak azaltzea. Bilera horretan, ikasleak edo haren gurasoek erabakiko dute prozedura adostua onartu edo baztertzen duten.

5. Bilerara agertzen ez badira edo aukerabide hori baztertzen badute, hezkuntza neurriaren aplikazioaren tramitazioa ohiko prozeduraren bidez egingen da, foru dekretu honen 20. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta artikuluko horren 7. puntutik aurrera adierazitako epeen kontaketa hasiko da. Horrelakoetan, alegazioak aurkezteko eta instruktoarea errefusatzeko epea bilera egiteko finkatutako egunaren biharamunetik hasiko da.

6. Prozedura adostua tramitatzeko modua eta prozeduran parte hartzen duten alderdiak ikastetxe bakoitzak erabakiko ditu bere Elkarbizitzaren Erregelamenduan. Nolanahi ere, aplikatzen den neurria arinagoa izanen da prozedura hasteko dokumentuan ezartzen dena baino.

7. Prozedura adostua tramitatu gero, zuzendaritzak elkarbizitzarako konpromisoa erredaktatu beharko du. Konpromiso horretan, gutxienez, ikaslearen eta gurasoen edo legezko ordezkariaren onarpena konpromisoari, aplikatutako hezkuntza neurria eta hura betetzeko baliabideak agertuko dira. Konpromisoa hiru eskola eguneko epean adostu eta sinatu beharko da, bilera egin eta biharamunetik aurrera. Sinadurak bukaera emanen dio prozedura adostuari.

8. Nolanahi ere, prozedura adostuaren bidezko tramitazioa hogeitau eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasiera jakinarazten denetik hasita. Bestela, prozedura iraungitza hartuko da.

9. Prozeduraren tramitazioaren bitartean, akordioak porrot egiten badu, ohiko prozeduraren bidez segituko da, eta foru dekretu honen 20. artikuluko 7. puntutik aurrera adierazitako epeen kontaketa hasiko da. Horrelakoetan, alegazioak aurkeztu eta instruktoarea errefusatzeko epea porrota gertatu eta biharamunetik hasiko da.

24. artikulua. Dokumentazioa artxibatzea eta erregistroko idatzoharra deuseztatzea.

1. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak

direla eta, ikasleei hezkuntza neurriak aplikatzeko irekitzen zaizkien prozeduren tramitazioaldiko dokumentazioa ikastetxeek ezartzen duten euskarrian eta prozedurari jarraikiz artxibatuko da.

2. Hautsitako arauak eta aplikatutako hezkuntza neurriak erregistroetatik desagertuko dira neurria betetzen denetik bi urte bete ondoren.

VII. KAPITULUA

Familien parte-hartzea beren seme-alaben hezkuntza prozesuan, eskola eremuari dagokionez

25. artikulua. Familien inplikazioa eta konpromisoa.

Beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, aitei, amei edo legezko ordezkarietara dagokie behar diren neurriak hartzea, behar den laguntza eskatzea eta ikastetxeari laguntzea hezkuntza prozesua egoki joan dadin. Gainera, beren seme-alabak eskoletara eta programatzen diren jardueretara joatearen ardura izanen dute, eta baliabide guztiak jarriko dituzte etxean estudiatu eta irakasleek agintzen dituzten etxeko lan guztiak egin ditzaten.

26. artikulua. Aiten, amen edo legezko ordezkarien eskubideak.

1. Aitek, amek edo legezko ordezkarietara, beren seme-alaben hezkuntzari dagokionez, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan aitortutako eskubideak dituzte.

2. Hezkuntza Departamentuak aurreko puntuan adierazitako eskubideak erabili ahal izatea bermatuko du. Bereziki bermatuko da gurasoek edo legezko ordezkarietara beren seme-alaben ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzeko duten eskubidea, deusetan galarazi gabe ikastetxeko zuzendaritzari eta irakasleei esleitutako eskumenak. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- a) Seme-alaben ikaskuntza prozesuaren aurrerapenei eta haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari buruzko informazioa jasotzea. Hori dela eta, ikastetxeek prozesu horiei buruz behar den informazio guztia emanen diete gurasoei edo legezko ordezkarietara.
- b) Ikasturtearen hasieratik helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluatu, kalifikatu eta aurrera egiteko irizpideak ezagutzea eta egiten dituzten errekamazioei buruzko informazioa eta argibideak jasotzea.
- c) Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren neurrietatik beraiei dagozkienak ezagutzea, batez ere eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko baliabide gisa erabiltzekoa, eta, halakorik bada, parte hartzea proposatzen diren neurrien eta erabakien diseinuan, eta egoki iruditzen zaizkien errekamazioak aurkeztea, indarreko arudiari jarraikiz.
- d) Beren seme-alaben orientazio akademikoaren edo profesionalaren gaineko erabakiak hartzen direnean, entzuna izatea, aurreko puntuetan adierazitako parte-hartzea deusetan galarazi gabe.
- e) Ikastetxearen antolaketan, gobernuan eta funtzionamenduaren balorazioan parte hartzea, Eskola Kont-

seiluan edo ikastetxeko gurasoen elkarteetan parte hartuz.

27. artikulua. Aiten, amen edo legezko ordezkarien erantzukizunak.

1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan ezarritako eginbeharrak dituzte.

2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza arloko administrazioak eta kasuan kasuko ikastetxeak aurreko idatzatian adierazitako erantzukizunak betetzen direla begiratuko dute, eta bereziki, honako hauek betetzen direla begiratuko dute:

- a) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte-hartze aktiboa izatea, eta, hala badagokio, portaera batzuk zuzendu behar badira, ikastetxearekin lankidetzan aritzea.
- b) Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina izatea eta erraztea.
- c) Beren seme-alaben asistentzia, aprobetxamendua eta parte-hartzea bermatzen dituzten neurriak, baliabide materialak eta baldintzak hartzea.
- d) Beren seme-alabak ikastetxera eraman eta hartzeko orduan, puntualak izatea.
- e) Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.
- f) Eskola Komunitateko kide guztiak dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.
- g) Ikastetxearen berezko izaera ezagutzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektua errespetatzea eta seme-alabei errespetaraztea.

3. Ikastetxeko Elkarbizitza Planean familiek ikastetxeko bizitzan izanen duten parte-hartzea arautuko da, elkarbizitza buruzko alderdi guztietan.

4. Ikastetxeek ahalmena dute, ikaslea eskolatzearekin batera, familiei eskatzeko hezkuntza arloko erantzukidetasunaren konpromiso edo itun bat sina dezaten.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria.—Eskola Kontseiluaren eginkizunen eskuordetza.

Araudiaren arabera, kide anitzeko gobernu organo gisa jarduten duen eskola kontseilurik ez duten ikastetxeetan, foru dekretu honek Eskola Kontseiluari esleitzen dizkion eginkizunak eskola elkarteko sektore guztien parte-hartzea bideratzeko eskumena hartzen duen kide anitzeko organoari egokituko zaizkio.

Bigarren xedapen gehigarria.—Eskoletara ez joatea eta azken ebaluazioa.

Eskola jardueretara behin eta berriz huts egiteagatik, ezinezkoa bada ikasle bati etengabeko ebaluazioaren prozedura aplikatzea, azken ebaluazioa egiteko eskubidea beti bermatuko da. Eskoletara behin eta berriz huts egitea eta horren ondorioak ikastetxeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan zehaztuko dira. Era berean, ikastetxeek azken

ebaluazioaren egitura zehaztu beharko dute, irakasgai, eremu edo modulu bakoitzaren izaeraren arabera.

Hirugarren xedapen gehigarria.—DBHko hirugarren mailatik aurrera, eskoletara ez joateko eskubidea.

1. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik aurrerako ikasleek eskolara ez joateko taldeka hartzen dituzten erabakiak ez dira justifikatu gabeko hutsegite gisa hartuko, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Hezkuntza arloko erabakiekiko desadostasunengatik izan bada.
- b) Ikastetxeko zuzendaritzan eta ordezkarien batzarrean aurkeztutako proposamena, deialdia egiten dutenek sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Idazkia hutsegitearen eguna baino gutxienez hiru eskola egun lehenago aurkeztu beharko da, eta deialdiaren arrazoiak, dei-egileak, eguna eta ordua aipatu beharko dira.
- c) Proposamena ikastetxean DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasle guztien %15ek sinatu beharko dute gutxienez, edo DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasleen ordezkarien %75ek.
- d) Ikasleek, bozketa sekretuaren bidez, eskolara ez joateko proposamena onartzea edo errefusatzea gehiengo osoz, ordezkariaren argibideak jaso ondoren. Guztirako emaitza eta gelaz gelakoa ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio ordezkarien batzarrak, aurreikusitako jarduketak hasi baino bi eskola egun lehenago gutxienez.

2. Ikastetxeko zuzendaritzak aztertuko du betebeharrak horiek betetzen diren eta, horren arabera, ebatziko du eskolara ez joate hori justifikatu gabeko hutsegitez hartzeden edo ez. Ebazpen horren berri DBHko hirugarren mailatik aurrerako ikasleei, irakasleei, ordezkarien batzarrak eta ikastetxeko guraso elkarteetako buruei jakinaraziko zaie idatziz.

3. Dena dela, ikastetxeko zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu eskolara huts egiteko erabakia betetzen ez duten ikasleek foru dekretu honen 4. artikuluan aipatzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.

Laugarren xedapen gehigarria.—Gizarte erantzukizuna.

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoa kontuan harturik, irakasleek, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen betebeharrak galarazi gabe, eta bete behar duten eginkizunari kasu eginez, oinarritzko gizarte zerbitzuei jakinarazi behar dizkiete, ikastetxeko zuzendaritzaren edo orientazio departamentuaren bidez, adingabe bat arrisku egoeran edo babesik gabe gelditze-ko sor litezkeen egoerak, bereziki kontuan hartuz eskolara ez joateari lotutako alderdiak.

Bosgarren xedapen gehigarria.—Erantzukizun penala.

1. Ikastetxeko zuzendaritzak Fiskaltzari jakinaraziko dio

arau-hauste penaltzat har daitekeen edozein egintza.

2. Ikastetxe bateko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren jokaeren ondorioz, Fiskaltzak irekitzen badu Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako prozedura bat, horrek ez du ekarriko foru dekretu honen 20. artikuluan araututa dagoen ohiko prozedura etetea, bietan egintza berberak aztertzen badira ere.

Seigarren xedapen gehigarria.—Erantzukizun zibila.

1. Banaka edo taldeka, nahita edo axolagabekeriagatik, ikastetxeko instalazioetan edo materialetan, edo eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren ondasunetan, kalteak eragiten dituzten ikasleak behartuak egonen dira eragindako kaltea konpontzera edo konponketaren kostu ekonomikoa beren gain hartzera, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala.

2. Ikastetxearen edo eskola elkarteko edozein kideren ondasunak lapurtzen dituzten ikasleek lapurtutakoa itzuli beharko dute edo itzulketaren kostu ekonomikoa beren gain hartu, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala, eta ikastetxean berean egin litekeen zuzenketa deusetan galarazi gabe.

3. Ikaslea adingabea bada, haren gurasoak edo legezko ordezkariak erantzule zibilak izanen dira, legeetan ezarritakoaren arabera.

Zazpigarren xedapen gehigarria.—Matrikula deuseztatzea.

Derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko ikasketetan ari diren ikasleen kasuan, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak gertatuz gero, ikastetxeak matrikula deuseztatzea erabaki dezake, ohiz kanpoko neurri gisa. Neurri horren garrantzia ikusirik, beharrezkoa izanen da onestea eta ikastetxearen Elkarbizitzaren Erregelamenduan sartzea. Aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da lehenago ikasle horrekin hezkuntza neurriren bat hartu izana. Matrikularen deuseztapena ohiko prozeduraren bidez tramitatuko da. Xedapen honetan ezarritakoaren kontrako erreklamazioak ikastetxeko Eskola Kontseiluan aurkeztuko dira, ikastetxeko Elkarbizitzaren Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen iragankor bakarra.—Prozeduren ebazpena.

Foru dekretu honek indarra hartu aurretik hasi diren espedienteen tramitazioa abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretuan eta ekainaren 14ko 191/1997 Foru Dekretuan xedatuakoari jarraikiz bukatu beharko da. Lehenengo foru dekretuaren bidez unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta eginbeharrak ezarri ziren eta bigarrenaren bidez 417/1992 Foru Dekretua aldatu zen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen indargabetzaile bakarra.—Arauk indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta eginbeharrak ezarri zituena, eta uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretua, abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua aldatu zuena. Indarrik gabe uzten dira, orobat, foru dekretu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko arau guztiak, deusetan galarazi gabe foru dekretu honen xedapen iragankor bakarrean ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetan lehena.—Arauen garapena.

Baimena ematen zaio Hezkuntzako kontseilariari foru dekretu hau bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena.—Elkarbizitza planak.

Hezkuntzako Departamentuak behar den arau-garapena eginen du ikastetxe bakoitzak bere elkarbizitza plana presta dezan. Plan horretan Elkarbizitzaren Batzordearen eginkizunak eta osaera eta elkarbizitzaren inguruko beste alderdi batzuk zehaztuko dira.

Hirugarren azken xedapena.—Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 23an.—Nafarroako Gobernuko lehendakaria, Miguel Sanz Sesma.—Hezkuntzako kontseilaria, Alberto Catalán Higuera.

DECRETO FORAL

DE DERECHOS Y DEBERES DEL ALUMNADO Y DE LA
CONVIVENCIA EN LOS CENTROS EDUCATIVOS